

arteKa

**Klasea,
euskararen
ildaska**

E

etorkizuna korapilatzen dituzten ildasketan

BIZIA ITAURREAN EMATEN DUTENENA, URRE

NA MUINARI BIDEA EGINDA.

RE HIZKUNTZA, GURE KOS

RAGANA ETA ETORKIZU

ITEN ILDASKETAN

TUEN GOLDEA, BIZIA ITAURREAN EMATEN

TIK ALTATU DEN ERAMUINARI BIDEA

barrena

GEDAR

Portada
Itsasne Ezkerro

« *Tarteko mailako ekonomia itxi samarra izateak -klase ertain aktiboa- eta enpresa handien etekin handiek, eta horiek sustatu dituztenak euskaldunak izateak, eragin positiboa izan du herri-forma kapitalista egituratzen duten merkataritza-zirkuituetan. Izan ere, enpresen irabazi handiek eta klase ertain baten kontsumo gaitasun handiek bideraezin egin dute beste kapital batzuen inbertsio konpetitiboa, ehun ekonomiko eta kultura hori galbidera eramango lukeena. Bada, ehun sozioekonomiko sendoan sustraituta dagoen arren, euskararen menpekotasuna errentagarritasun kapitalistarekin lotuta dago lehenik. Eta soilik ondoren, euskararen biziraupena burgesia eta klase ertain baten hautuarekin lotuta dago.*

Komunistoi dagokigu euskararen auzia iraultza sozialistaren auzi bihurtzea eta, horren bidez, bere erabilera borondatezko aukera libre eta kontziente bihurtzea. »

06

EDITORIALA

Arteka

Euskara, auzi soziala

10



ERREPORTAJEA

Paul Beitia

Euskara eta maila
sozioekonomikoa: errepaso
soziolinguistiko bat

26



IKUSPUNTUA

Maddi Sarasua

Artearen autonomia eta XX.
mendeko bigarren erdiko
abangoardiak

44

DANOK IKUSTEN DE
EUSKARA GALDU DA
DANOK IKUSTEN DE
EUSKARA GALDU DA
DANOK IKUSTEN DE
EUSKARA GALDU DA
DANOK IKUSTEN DE
EUSKARA GALDU DA

KOLABORAZIOA

Aitor Bizkarra

«Danok ikusten degu:
euskera galdu da»

Euskara, auzi soziala

EDITORIALA

Auzi soziala da hizkuntzarena, sozialak diren harremanen emaitza eta bitarteko aldi berean. Guri dagokigunez, harreman sozialen gudu zelai horretako subjektu gisa, klase borrokaren auzia da euskara, hau da, harreman sozial zehatzetan oinarritutako gatazkaren bitarteko subordinatua da euskara, harreman sozial horiek gatazka bihurtzen duten neurrian: aspiratua eta baztertua, folklore hutsera murriztu nahi dute gure arteko loturen bitarteko den hizkuntza, merkatu gai eta merkatuaren menpeko gai.

Errealitate hori ezkutatu da sarri, eta hizkuntzaren auzia nazioaren auzi gisa ebatzi. Baina hori, nazio auzi gisa ebatzen den kontraesana bezala, harreman sozial kapitalisten forma ideologikoa baino ez da, hau da, funtsezko harreman sozialak estaltzen dituen forma. Izan ere, nazio auzia klase borrokaren eta boterearen auzia den neurri berean da euskara auzi soziala.

Hizkuntzaren bitartekaritza forma subordinatuan aurkeztu dugu; are argiago ageri zaigu hori hizkuntza zehatz baten inguruan ari bagara. Izan ere, hizkuntza, harremanetarako baliabide den heinean, eta harreman horietarako tresna izan arren, beren emaitza da; hizkuntza bat edo beste izatea funtzio hori betetzen duena, ordea, gaitasun politikoeikiko menpeko da, hau da, indarrez erabakitzen da. Era-

baki hori ez da, baina, borondate auzi gisa ulertu behar, botere auzi gisa baizik. Hemen politikak gure aurreko idatzietan izan duen adiera berdina hartzen du: ez da gestio edo administrazio burgesa, baizik eta klase borroka, hots, aipatu harreman sozialen gudu zelaian artikulatutako subjektu antagonikoen arteko hil ala biziko borroka.

Hizkuntzaren zapalkuntzaren inguruan bi fase nagusi identifikatu behar dira: politikoa eta soziala. Ezin dira biak inolaz ere banandu, baina faseak baten edo bestearen gailentasunaren arabera ezaugarritzen dira. Politikaren artikulazioa guri dagokigun

Hizkuntza, harremanetarako baliabide den heinean, eta harreman horietarako tresna izan arren, beren emaitza da; hizkuntza bat edo beste izatea funtzio hori betetzen duena, ordea, gaitasun politikoeikiko menpeko da, hau da, indarrez erabakitzen da

Jakina da euskararen aurkako zapalkuntza politikoa estatu kapitalistaren lege eta bortizkeriaren bitartez gauzatu dela. Gure aurrekari historiko hurbilena dugu hori: ordena sozial berritik kanpo dagoena barrura ekartzeko bitartekoa da menderatzailearen politika. Menderakuntza sozialaren fasea, ordea, hortik aurrera nagusitzen da: euskarak ez du bere aurkako lege berezien beharrik, gauzen egoerak berak zokoratzen du bazterreko hizkuntza izatera

zeregina da. Politika ez zaigu modu agerikoan aurkeztean, errealtatearen inertziazko joera gisa baizik, edo zapalkuntza erlazio mutu gisa, hau da, politika politikaren ukazio gisa agertzen da egun. Baina ez da beti horrela izan.

Jakina da euskararen aurkako zapalkuntza politikoa estatu kapitalistaren lege eta bortizkeriaren bitartez gauzatu dela. Gure aurrekari historiko hurbilena dugu hori: ordena sozial berritik kanpo dagoena barrura ekartzeko bitartekoa da menderatzailearen politika. Menderakuntza sozialaren fasea, ordea, hortik aurrera nagusitzen da: euskarak ez du bere aurkako lege berezien beharrik, gauzen egoerak berak zokoratzen du bazterreko hizkuntza izatera. Hemen ez da menderatze politika gordinki agertzen, baina bada politikarako lekurik, egoera sozial objektibo horren aurkako mugimendu politiko sozialistak ezaugarritzen duena. Bada ere bazterreko politika bat, irrazionaltasunean oinarritzen dena, euskararen aurkako gorroto itsuan.

Politikaren fase gisa ezaugarritu dugunak auzi sozialean aurkitzen du bere edukia. Euskara suntsitu behar da, bera sustraituta dagoen harreman sozialak gainditu behar badira. Hala gertatzen da ekoizpen modu kapitalistaren hedapenarekin, eta hari lotutako forma politikoaren trinkotzearekin ere. Euskararen aurkako erasoek eta bere erresistentziak gorroto irrazionala hedatzen badute ere, azken finean, irrazionaltasun horrek bere arrazoia aurkitzen du ekoizpen harreman kapitalisten sorreran. Hau da, homogeneitate nazionalaren aldeko politika burgesak bere oinarria du kapital harremanaren hedapenean eta horri kontrajartzen zaion erresistentzia aurre-kapitalistaren menderatzean. Erresistentzia aurre-kapitalista hori ez da ezaugarritzen historikoki kapitalismoaren aurretik etortzeagatik soilik.

Bada ere kapitalismo garatuan erresistentzia aurre-kapitalista bat, forman soilik bada ere, merkatu

txikian, auzo burges txikian eta jabetza pribatuaren banaketan oinarritzen dena. Hor badu hein handi batetan euskarak babesa, kapitalismoaren aurka gauzatzen den erresistentzia kapitalistaren gisara. Hau da, ez da beti indarrean dagoen errealtate bat, baizik eta errealtate hori gainditu duen garapenaren aurkako hala moduzko erresistentzia bat, sarri erresistentzia nazional gisa ezaugarritu dena. Bere bideragarritasuna, ordea, nahiko antzua da. Izan ere, halakorik modu zabal batetan gertatzen den lekuetan, errealki, errenta altuak izan ohi dira, bizimodu horrek ekoizpen kapitalistaren errentagarritasun handiarekin duen erlazio zuzena agerian geratuz.

Euskara ez da baserri bat, baina hala nahiko lukete askok; esplotazio-kapital handien fatxada gisara darabilen baserria.

Ikuspegi politiko eta ideologiko horien guztien atzean, ageriko irrazionaltasunetik -bai gorrotoari dagokiona, nola maitasunari dagokiona ere- eginda

Bada ere kapitalismo garatuan erresistentzia aurre-kapitalista bat, forman soilik bada ere, merkatu txikian, auzo burges txikian eta jabetza pribatuaren banaketan oinarritzen dena. Hor badu hein handi batetan euskarak babesa, kapitalismoaren aurka gauzatzen den erresistentzia kapitalistaren gisara



*Euskararen aldeko erabakiak
har daitezke, baina
hartarako dirua behar da,
eta ekoizpen kapitalistaren
errentagarritasuna sustatu,
euskara etengabe gure
borondatea definitzen duen
auzi ekonomikoaren menpeko
eginez, edo euskararekiko
gure borondatea merkantzien
borondatetik eratorriz*

egon arren, ideologiaren eustorman zulo sakon bat eginez gero, klase sozialak eta interes ekonomikoe-kin egingo dugu tupust, eta euskararen bideragarritasuna ekonomia kapitalistaren bideragarritasunarekin eta adartze desberdinekin lotuta agertuko zaigu. Bada oraindik ere politika burgesa eta irrazionaltasuna; baina haien gorpuztea, edo hobeto esanda, haragitzea, estatu-administrazio kapitalisten aurrekontu ekonomikoetan gertatzen da. Euskararen aldeko erabakiak har daitezke, baina hartarako dirua behar da, eta ekoizpen kapitalistaren errentagarritasuna sustatu, euskara etengabe gure borondatea definitzen duen auzi ekonomikoaren menpeko eginez, edo euskararekiko gure borondatea merkantzien borondateatik eratorriz.

Ez da horrekin agortzen auzi soziala, ordea. Bistan da diruarekiko menpekotasunak edo diruaren botereak ezaugarritzen duela gure gaitasuna. Hor auzi soziala eta politikoaren arteko harreman kapitalista sintetizatzen da. Baina errealtate soziala hori baino zabalagoa da. Garrantzitsuak dira errenta eta euskara harremantzen dituzten analisiak. Interesgarria da ere forma sozialaren auzi orokorra aztertzea, historikoki, mugimendu sozio-politiko desberdinen emaitza gisa. Zergatik herri industrializatueta edota hirietan euskara desagertzeko joera indartsuagoa da landa-eremueta edota herri txikietan baino? Eta zergatik indartsuagoa hirietatik hurbil dauden herri txikietan konexio ahulagoak dituztenetan baino? Joera kultural desberdinek, herri txikietan bigarren etxe bat izatea kasu, eta horien oinarrian aurki daitekeen komunikabide fisikoen garapenak zein ondorio izaten ari dira aipatu herrietan?

Argi da, harreman kapitalistak gero eta gehiago txertatu gure egunerokoan, orduan eta posizio gehiago galtzen duela euskarak. Askok fenomeno hori migrazioekin lotu izan du, baina egiazki euskararen galeraren mehatxua ez dator kanpotik, barrutik baizik. Mundu mailako merkatuarekiko barne konexioek gero eta gehiago ahultzen dituzte gure harreman pertsonal zuzenak eta gero eta mendekago egiten gaituzte konexio horien bitartekari-ekin, euskara ez diren hizkuntzekin kasu. Euskal Herri zabalean, oro har, euskarak ez du lekurik aurkitu ekonomia kapitalistan eta bazterreko posizioa du; oraindik ere bat edo beste euskarari etekin ekonomikoa aurkitzen dio, izan monopolio errenta gisa edo izan merkatu eskaintza berezia delako herri ez euskaldunetan.

Kasu berezia da Gipuzkoa. Bere kultura koope-
ratibistak eragin handia izan du euskararen bizi-
raupenean. Tarteko mailako ekonomia itxi samarra
izateak *-klase ertain aktiboa-* eta enpresa handien

etekin handiek, eta horiek sustatu dituztenak eus-
kaldunak izateak, eragin positiboa izan du herri-
forma kapitalista egituratzen duten merkataritza-
zirkuituetan. Izan ere, enpresen irabazi handiek eta
klase ertain baten kontsumo gaitasun handiek bi-
deraezin egin dute beste kapital batzuen inbertsio
konpetitiboa, ehun ekonomiko eta kultura hori gal-
bidera eramango lukeena. Bada, ehun sozioekono-
miko sendoan sustraituta dagoen arren, euskararen
menpekotasuna errentagarritasun kapitalistarekin
lotuta dago lehenik. Eta soilik ondoren, euskararen
biziraupena burgesia eta klase ertain baten hautua-
rekin lotuta dago.

Komunistoi dagokigu euskararen auzia iraultza
sozialistaren auzi bihurtzea eta, horren bidez, bere
erabilera borondatezko aukera libre eta kontziente
bihurtzea. /



ERREPORTAJEA

Euskara eta maila sozioekonomikoa: errepaso soziolinguistiko bat

Testua
Irudia

Paul Beitia
Zoe Martikorena
Aitor Arroyo



Azkenaldian ugaritu egin dira euskararen egoeran klase-faktoreak joka dezakeen papera mahaigaineratu duten ahotsak, baita kapital-dinamikak eremu soziolinguistikoan duen eragina aztertzeke borondatea erakutsi dutenak ere. Hala ere, Euskal Herrian ez da ikerketa sistematikorik egon izan gai horren inguruan eta, oro har, intuizio horiei lagunduko lieketen datuak falta izan dira. Baina, ikertu, ikertu da zertxobait elementu batzuen inguruan eta datu batzuk badaude, sakabanatuak, desordenatuak eta lauso samarrak.


Artikulu honen helburua euskararen eta biztanleriaren *maila sozioekonomikoaren* arteko gaur egungo erlazioa aztertzea da, eta aipatutako ikerketa horietako batzuk errebasatuko ditugu horretarako. Hasieratik aipatu behar dira erabiliko ditugun ikerketen zenbait ezaugarri. Batetik, kontuan hartu behar da egungo soziolinguistika burgesak klasea, kategoria gisa, bazterturik daukala eta ez duela, ondorioz, errealitate garaikidea deskribatzeko aldagaitzat erabiltzen. Klasearen partez, errenta-maila eta maila sozioekonomikoa erabiltzen ditu, erabiltzekotan, eta horrek indefinizioa dakar kasu askotan. Gure lana, ordea, metodologia horrek guztiz baldintzatzen duenez gero, komenigarriagoa iruditzen zaigu aztergaia euskararen eta maila sozioekonomikoaren erlazio gisa definitzea. Bestalde, esan bezala, lan honek datu sakabanatuak biltzen ditu, urte eta lurralde desberdinetan jasoak, eta ezin zaio, beraz, batasun erabatekorik eskatu. Saiatu gara, hala ere, denboran hurbilen dauden datuak jasotzen, ikerketa eta bere ondorioak ahalik eta egokienak izan daitezzen.

EUSKARAREN EGOERA OROKORRA: EZAGUTZA ETA ERABILERA

Interesatzen zaizkigun aldagaiak sartu aurretik, komenigarria da euskararen egungo egoera soziolinguistikoaren irudi orokor batekin hastea, kokapen zabalago bat egiteko. Horre-

tarako, hizkuntz gaitasunari eta erabilerari erreparatuko diegu, bai baitakigu bi eremu horiek ez dutela bat egiten euskararen kasuan. Euskal Herriak, guztira, 3.127.994 biztanle inguru ditu, hiru eremu administratibotan bereizita: 2.191.000 inguru EAEn, 643.000 bat Nafarroa Garaian eta 298.000 bueltan Ipar Euskal Herrian. Biztanleriaren hizkuntz gaitasunari dagokionez, hemen datuak [1]:

HIZKUNTZ GAITASUNA EUSKAL HERRIAN



Azkenaldian ugaritu egin dira euskararen egoeran klase-faktoreak joka dezakeen papera mahaigaineratu duten ahotsak, baina intuizio horiei lagunduko lieketen datuak falta izan dira

Lurralde osoari bagagozkio, biztanleriaren laurdena baino zertxobait gehiago da euskaraz egoki aritzeko gai, 751.000 pertsona inguru, eta, hamarretik bat eta erdi inguruk, 434.000 bat pertsonak, ondo ulertzen dute euskara, hitz egiteko guztiz gai ez diren arren. Horiexek dira euskararen mugak, zenbakitan: milioi bat pertsona inguru. Hortik kanpo, ikusi dugunez, Euskal Herriko biztanleriaren erdia baino gehiagok ez du ez euskaraz hitz egiten, ezta ondo ulertu ere; hor sartzen dira bai frantses- eta gaztelania-hiztun elebakarrak, baina baita horiek hitz egiten ez dituztenak ere. Gainera, gaitasunari buruz ari garenez gero, garrantzitsua da aipatzea elebidunen artean ere ia erdiak erdaraz aritzeko erraztasun handiagoa aitortzen diola bere buruari [2].

Datuak, jakina, aldatu egiten dira lurraldeka eta administrazio-eremuka zatitzen baditugu. EA Eren kasuan, esaterako, biztanleria elebidunen kopurua % 33,9raino igotzen da: % 50,6 Gipuzkoan, % 27,6 Bizkaian eta % 19,2 Araban. Bestalde, euskaldun hartzaileak % 19,1 dira eta erdaldun elebakarrak % 47. Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaian, aldiz, datuek nabarmen egiten dute behera eta erdaldunen kopurua % 70,1era eta % 76,7ra igotzen dira. Elebidun osoak % 12,9 dira Nafarroan eta % 20,5 Iparraldean (biztanleen erdiak Nafarroa Beherean eta Zuberoan eta hamarretik 1,6 inguru soilik Lapurdin). Hizkuntz gaitasunaren aldetik, beraz, elebidun kopuru handiena Gipuzkoako, Nafarroa Behereko eta Zuberoako lurraldeek daukate, eta Nafarroa Garaia, Araba eta Lapurdi kopuru antzekoetan dabilta.

Esan beharrik ez dago datuen aldakortasuna lurralde bakoitzaren errealitate historikoaren eta egungo egoera politikoaren ondorio dela. Alde batetik, koofizialtasunari dagokionez, oso desberdina da EA Eren euskarak daukan garrantzi soziala eta Nafarroan edo Ipar Euskal Herrian daukana; baina, beste alde batetik, lurralde bakoitzean euskararen galerak eta garapenak egin duten bideak ere desberdinak dira, bai tenpo-

**Horiexek dira
euskararen mugak,
zenbakitan: milioi
bat pertsona inguru.
Hortik kanpo,
ikusi dugunez,
Euskal Herriko
biztanleriaren
erdia baino
gehiago erdaldun
elebakarra da**



ralki eta baita kualitatiboki ere.

Errepara diezaigun erabilerari orain. Euskaldunak ez direnak biztanleria osoaren erdia baino zertxobait gehiago direla esan badugu, orokorrean erdara hutsean aritzen direnak % 69raino igotzen dira. Aldiz, % 10,3 arituko lirateke oro har euskaraz erdaraz baino gehiago, eta % 6k paretsu erabiliko lituzke bi hizkuntzak. Berriz ere, lurraldeka begiratzuz gero, datuak aldatu egiten dira. Erdaraz soilik aritzen direnak % 77,2 dira Ipar Euskal Herrian eta % 85,3 Nafarroan. Batez ere euskaraz aritzen direnak % 13,4 dira EAEn, % 1,9 Iparraldean eta % 3,7 Nafarroan, eta, aldiz, paretsu darabiltzate bi hizkuntzak % 7,1ek, % 2,9k eta % 6,2k, hurrenez hurren [3].

Bestalde, euskararen egoera oroko-

rraz jakin nahi badugu, beharrezkoa zaigu gure datuek egoera horren garapenaren berri ere ematea. Bi hamarkadako tartea hartuz gero, 1991tik hona, hizkuntz gaitasuna igo egin da euskararen lurralde osoan, %22,3tik gaur egungo % 28,4ra. Erabileran ere datu jeneralak gorakorrak dira: 1991ean % 13,7k erabiltzen zuen euskara erdara beste edo gehiago eta, egun, % 16,5 da. Hala ere, datu jeneralek gora egin badute ere, joera ez da hori bera hainbat lurraldetan eta eremutan. Esate baterako, Nafarroan euskararen erabileraren hazkundea oso txikia izan da bi hamarkadetan (% 6tik %6,6ra) eta joera ez da batere argia; Iparraldean, aldiz, joera, nabarmen, beherakorra da, 1991an % 13,3 baitziren euskara frantsesa beste edo gehiago erabiltzen zutenak, eta

egun soilik % 8,1 [4].

Hizkuntz gaitasunak gorantz egitearen arrazoi nagusia hezkuntzan bilatu behar da, D ereduaren kontsolidazioan, gero ikusiko dugun bezala. Erabileraren datuei dagokienez, aldiz, interpretazio egoki bat beharrezkoa da: datuek biztanleria osoarekin erlazioan euskararen erabilera igo egin dela adierazten badute ere, ikus daiteke hiztun berrien igoerarekin alderatuta erabileraren igoera askoz apalagoa dela, eta zenbait eremutan erabilera horrek behera ere egin duela. Ondorioz, ulertu behar da, biztanleria osoarekin erlazioan euskararen erabilera igo egin bada ere, erlatiboki, hiztun kopuruarekin erlazioan, euskara beste hizkuntzak bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen tasa baxuagoa dela gaur egun 1991an baino.





KORRELAZIO BATEN HASTAPENAK: POBREZIA ETA EUSKARA

Behin gaia egoki kokatzeko Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren irudi orokor bat emanda, has gaitezke euskararen eta maila sozioekonomikoaren erlazioa ikertzen. Sareetan hautsak harrotu zituen duela pare bat hilabete *Berrian* argitaratu zen «Pobreen hizkuntzak» artikulua, zeinak, *Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko II. inkestan* oinarrituta, pobrezia eta euskararen arteko erlazioa laburbiltzen baitzuen. Inkesta horrekin berarekin hasiko gara geroni ere. Kontuan hartu behar da Gipuzkoako datuak baino ez direla eta, beraz, ezin direla euskararen lurralde osora aplikatu. Hala ere, Gipuzkoa lurralderik euskaldunena dela jakinda, ez da eremurik okerrera erlazio hau aztertzeke, pentsa baitaiteke daturik baikorrenak bertakoak izango direla eta, beraz, ikerketa bera Euskal Herri osoan eginez gero, datuek okerrera egingo luketela.

Inkestak diru-sarreraren arabera definitzen du «pobrezia erlatibo» deitzen diona: pertsona bakarraren kasuan 850 bat eurotan finkatzen da muga eta, aldiz, lau pertsonaren kasuan, esaterako, 1.790 eurotan. Inkestak, gero, pobrezia erlatibo horren presentziaren edo absentziaren arabera sailkatzen ditu pertsonak. Kontuan hartu behar da, beraz, aldagai hori zalantzarik dela oso; batetik, pobrezia ikuspegi murriztua eskaintzen digulako eta, bestetik, ez duelako nahikoa informazio ematen langile-klaseko beste kapa batzuei buruz.


Inkestak aztertzen duena, zehazki, zera da: Gipuzkoan pobrezia erlatibo egoeran dauden biztanleen lehen hizkuntza («ama hizkuntza») zein den, batetik, eta haien hizkuntza-ezagutza zein den, bestetik. Badago lotura argi bat lehen hizkuntzaren eta pobrezia erlatiboaren presentziaren artean: lurralde osoko pobrezia erlatiboaren tasekin alderatuta, nabarmen baxuagoa da haren presentzia lehen hizkuntza gisa euskara dutenengan. Gipuzkoa-

rrren % 15,8 bizi da pobrezia erlatiboan, baina lehen hizkuntza euskara dutenen % 8,7 soilik. Aldiz, lehen hizkuntza gisa gaztelania dutenen kasuan % 17,3ra igo-tzen da tasa, eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat dutenen ka-suan, biztanleen % 52,2 legoke pobrezia erlatibo egoeran. Gizarte-bazterketari dagokionez ere, antzeko: gipuzkoarren % 13,4 badago egoera horretan, baina euskara lehen hizkuntzatzat dutenen % 5,2 baino ez. Kasu honetan ere, euskaraz eta gaztelaniaz aparteko hizkun-tza dutenen kasua da ikaragarriena, haien % 46 baitago gizarte-bazterketa egoeran [5]. Beste era batera esanda, Gipuzkoan lehen hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania dutenak % 40 dira, baina bazterketa larrian bizi di-ren gipuzkoarren % 11k baino ez dauka euskara lehen hizkuntzatzat [6].

Hizkuntza-ezagutzari erreparatuta ere, antzekoak dira datuak: tasa oro-korrak baino baxuagoak dira pobrezia-eta bazterketa-tasak euskaraz badaki-ten gipuzkoarren kasuan; % 11,8 eta % 8, hurrenez hurren, tasa orokorreta-tik (% 15,2 eta % 13,3) nabarmen behe-ra. Hemen ere aipatzekoa da tasarik al-tuenak ez euskaraz eta ez gaztelaniaz ez dakitenenak direla: haien arteko % 46 dago pobrezia erlatibo egoeran eta % 26,4k gizarte-bazterketa jasaten du [7].

Badirudi, Gipuzkoako datuen ara-bera, korrelazio argi samarra dagoela errentaren eta euskararen artean: biz-tanle batek zenbat eta errenta baxua-go izan, orduan eta aukera gutxiago dago biztanle horrek euskaraz jakite-ko edo haren lehen hizkuntza euska-ra izateko. Zaila da soilik datu horie-kin ondorio garbiak ateratzea, ordea; errentaren baremo zehatzagoa beharko genuke horretarako, eta datuak lurral-de zabalagokoak izatea. Horretan lagun diezaguke 2007an EAEko Lehen Hez-kuntzako ikasleen euskara-maila iker-tzen duen txostenak. Bertan, ikasleen familiaren hizkuntza aldagai garrantzi-tsua dela argudiatuta, familiaren indize sozioekonomikoaren eta hizkuntzaren arteko erlazioa aztertzen da. Kasu ho-

**Gipuzkoarren
% 15,8 bizi da
pobrezia erlatiboan,
baina lehen
hizkuntza euskara
dutenen % 8,7
soilik, eta euskara
edo gaztelania ez
den beste hizkuntza
bat dutenen % 52,2**





netan, diru-sarrerez gain, indize sozioekonomikoaren barruan sartzen da familiaren maila kulturala ere, eta lau talde banatzen dira hortik: behe maila, behe-erdi maila, goi-erdi maila eta goi maila. Hizkuntzari dagokionez, aldez, bi taldetan bereizten dira datuak: euskararik ez duten familiak eta familia euskaldunak.

Datuak nabarmen-nabarmen berresten dute Gipuzkoako errealtatea. Ikerketaren arabera, EAEn maila sozioekonomiko baxuena duten familien % 81,5 ikaragarri bat da ez-euskalduna eta, beraz, % 18,5 baino ez litzateke euskalduna izango. Hortik goragoko datuetan, korrelazioa argia da: zenbat eta maila sozioekonomiko altuagoa izan, orduan eta altuagoa familia euskaldunen kopurua; % 25,6 behe-erdi mailako familietan, % 28 goi-erdi mailakoetan eta % 30,9 maila sozioekonomiko altueneko familietan [8].

Datuak, jakina, kontuz erabiltzekoak dira: soilik EAEko Lehen Hezkuntzako familiei buruzkoak izateaz gain, ikerketak berak ez du talde sozioekonomiko bakoitzaren zehaztapenik ematen eta, beraz, ez dakigu zehazki zeri deitzen dion «goi mailako» izatea. Hala ere, SIISenarekin alderatuta, maila sozioekonomikoaren ulerkerak konplexuago bat darabil ikerketa honek eta, familiak maila desberdinetan banatzen dituenek, ez digu soilik pobrezia egoeran daudenen inguruko informazioa ematen. Horregatik, erabateko ondorioarik atera ezin daitekeen arren, datuak bide ematen dute zera interpretatzeko: korrelazio bat, egon, badagoela klase sozialaren eta euskararen presentziaren artean, hain justu, zenbat eta errenta handiagoa, orduan eta presentzia agerikoagoa euskarak.

HEZKUNTZA ETA HIZKUNTZ EREDUAK

Klase sozialaren eta euskararen arteko erlazioa aztertzeko orduan, garrantzitsua da egungo hezkuntza sistemari ere erreparatzea. Alde batetik, hezkuntzak garrantzi berebizikoa hartu du euskararen transmisioan,

paradigma aldaketa bat suposatzeraino; izan ere, historian lehendabizikoz, gaur egun gehiago dira euskara eskolan ikasten dutenak, etxetik jasotzen dutenak baino [9]. Eta, bestetik, gero eta ahots gehiagok ohartarazten dute hizkuntz ereduen arabeko hezkuntzaren arriskuei buruz, izan arrisku linguistikoak zein sozialak.

Hizkuntz eredu deituak euskararen eta gaztelaniaren koofizialtasuna hezkuntza-arloan aplikatzeko ereduak dira –Ipar Euskal Herrian euskara ez da ofiziala, baina egon badaude eredu elebidunak ere–. EAEn 1983tik eta Nafarroan 1986tik aurrera, lau hizkuntz eredutan banatzen dira zentroak: D eredu edo euskarazko hezkuntza –gaztelania irakasgaia salbu–, B eredu edo irakasgaiak euskararen eta gaztelaniaren artean banatzen dituen hezkuntza, A eredu edo gaztelaniazko hezkuntza –euskara irakasgaia salbu– eta gaztelania hutsezko hezkuntza, EAEn X eredu edo Nafarroan G eredu deitua. Esan gabe doa, eredu horiek guztiak, halaber, zentro publiko eta itunpe-





EAEn Lehen Hezkuntza A ereduako zentro publikoetan egiten duten ikasleen artean, % 86,1 maila sozioekonomiko baxukoa edo erdi-behe mailakoa da

koetan banatzen direla.

Gaur egun, EAEn, Haur Hezkuntzako ikasleen % 78,6k eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako % 65ak D ereduari ikasten diete. Hizkuntz ereduak abiatu zirenetik, EAEn eten-gabe egin dute gora D ereduari matrikulazioek eta, zantzu guztien arabera, joera mantentzea espero da. Hala ere, A ereduak badauka presentzia oraindik –Arabara, esaterako, zentro guztien ia laurdena osatzen dute– eta Batxilergo eredu horretan egiten dutenak ikasleen % 33,4 dira. Lanbide Heziketan ere, EAEko ikasleen gehiengoak gaztelania hutsean jasotzen ditu eskolak: kurtso honetan, adibidez, 43.000

inguru ikasleen % 60k baino gehiagok [10]. Nafarroan oso bestelakoa da egoera. 2004-2005 ikasturteko datuen arabera, ikasleen ia erdiak –% 47,4– G ereduari matrikulatu ziren, gaztelania huts-hutseko ereduari, alegia, eta D ereduari ez ziren ikasleen laurdena iristen [11]. Ipar Euskal Herriko egoerari dagokionez, bi eredu nagusitan banatzen dira ikastetxeak, eredu frantses elebakarrean, batetik, eta euskarazko eta elebidunetan, bestetik, eta ikasleak erdi bana bereizten dira bi ereduaren, gutxi asko.

Behin hezkuntzako irudi orokorra emanda, klase-posizioaren eta hizkuntzaren erlazioari begira jarriko ga-

ra berriro, oraingoan datuak hizkuntz ereduaren galbaketik pasata. Berriz ere EAEko Lehen Hezkuntzako datuei begiratuko diegu, datu osatuak ez direla jakinda ere, irudi orokor bat egiten lagunduko digutelakoan. Gogora dezagun, ISEIk eta Eusko Jaurlaritzak 2006an egindako ikerketan, maila sozioekonomikoa lau taldeetan banatzen dela, diru-sarrerak eta maila kulturala kontuan hartuta: behe maila, behe-erdi maila, goi-erdi maila eta goi maila.

A ereduari datuak nabarmenak dira: EAEn Lehen Hezkuntza A ereduari zentro publikoetan egiten duten ikasleen artean, % 86,1 maila sozioekonomiko baxukoa edo erdi-behe mailakoa








**UDALERRI EUSKALDUNAK,
ERRENTA-MAILA ETA
ERAIKUNTZA-MODUA**

intentsiboa edo urbanoagoa— eta euskararen erabilerak izan dezaketen erlazioa ikertzen du. Grafiko honetan jasotzen dira emaitzak [14]:



Kolore berdeko herrietan euskara erabiliko litzateke gehienbat eta erdara gorrikoetan. Bestalde, ikusten denez, ardatz horizontalean eraikuntza-ereduaren arabera sailkatuta ageriko lirarteke udalerriak eta bertikalean, aldiz, errenta-mailaren arabera, zenbat eta gorago orduan eta errenta altuagoak herri horretan, alegia.

Udalerri euskaldunak, modu nabarmenean, erditik gora daude kokatuta errentaren araberrako ardatzean; are, ardatz horretako goiko partea nagusiki udalerri euskaldunek osatzen dute. Badira kolore gorriko zenbait herri grafikoaren goialdean, hiriburuak eta Bizkaiko herri batzuk bereziki –Laukiz, Berango, Sopela, Getxo–, baina nabarmena da grafikoaren beheko partean kolore gorria nagusi dela. Berririo aurkitzen dugu korrelazio bat euskal hiztunen eta errentaren artean, zenbat eta errenta altuagoa orduan eta euskararen presentzia handiagoa, kasu honetan udalerrien egoera orokorrari erreparatuta.

Interesgarria da ardatz horizontalari ere erreparatzea. Emaizten arabera, euskararen presentzia askoz handiagoa da eraikuntza-modu estentsiboko eremuetan, landa-eremuan. Aldiz, modu intentsiboko eremuetan, hau da, blokekako eraikuntzari, eremu populatua goei eta, oro har, bizimodu kapitalista garaikideari lotuago dauden udalerrietan, gaztelania nagusitzen da; udalerri euskaldun batzuk dira salbuespena –Ordizia, Durango edo Abadiño, adibidez–, baina halaber goialdean kokatzen dira ardatz bertikalean. Bestalde, badira hainbat landa-eremuko udalerri nagusiki erdaldunak direnak, batez ere Araban.

Beraz, datuek erakusten digutena zera da: udalerri euskaldunen tipologia, oro har, errenta-maila ertain-altukoa eta landa-eremukoa dela. Lotura hori konparazioz ere planteatu liteke: udalerrien euskalduntasuna errenta ertain-altuekin lotzen den bezala, errenta txikiak eta langabezia, besteak beste, euskararen presentzia murriztagoarekin lotzen dira. Hala ere, interesgarria da

puntu honetan ikerketak dioena ekartzea, izan ere, «aldi berean, euskararen erabilera txikiaren adierazleak errenta handiekin eta bigarren etxebizitza ugariarekin ere lotzen dira». Hala, ikerketak ondorioztatzen duena da euskararen presentzia murrizta dela bai maila sozioekonomiko baxuko sektoreetan, baina baita maila altuenekoetan ere. Euskararen presentzia «erdi-mailako klaseetan» legoke nabarmenen, beraz. Bestalde, interesgarria da ikerketako ondorioetan «modernizazioa hizkuntza-homogeneizazioaren arrazoiak delako hipotesia» ere ageri dela. Hipotesi horren arabera, eremu urbanoa, familia-eredu garaikidea eta immigrazioa bezalako faktoreak –finean, gure iritziaren bizimodu kapitalista garaikidearen garapena– euskararen presentzia murriztarekin lotzen dira [15]. Txostenak ez du gehiago ikertzen ideia horren inguruan, baina interesgarria iruditu zaigu guri dagokigun gairako.

Euskararen presentzia murrizta da bai maila sozioekonomiko baxuko sektoreetan, baina baita maila altuenekoetan ere. Euskararen presentzia «erdi-mailako klaseetan» legoke nabarmenen



ONDORIOAK

Gure helburua euskararen eta maila sozioekonomikoaren arteko erlazioaren gaur egungo nolakotasuna aztertzea zen. Horretarako errepaso



Badago korrelazio bat errenta-mailaren eta euskararen presentziaren artean; zenbat eta errenta-maila altuagoa izan, euskararen presentzia orduan eta nabarmenagoa da, oro har

Datu hauek, gure ustez, gai honetan sakontzeko beharrezkotasuna azaleratzen dute. Gaiak oro har eragiten duen deserosotasuna gorabehera, ezin zaio luzaroago entzungor egin

soziolinguistikoko bat egiten saiatu gara, gaiaren inguruan zenbait ikerketak argitaratutako datu sakabanatuak ordenatuta. Aztertu ditugunak, zehazki, hauek izan dira: pobrezia-egoeran dauden gipuzkoarren ezaugarri linguistikokoak, EAEko ikastetxeetako ikasleen maila sozioekonomikoa hizkuntz ereduka eta udalerrien joera linguistikoa errentaren eta eraikuntza-moduaren arabera.

Ondorio nagusi bat ateratzekotan, haxe litzateke: badago korrelazio bat errenta-mailaren eta euskararen presentziaren artean; zenbat eta errenta-maila altuagoa izan, euskararen presentzia orduan eta nabarmenagoa da, oro har. Ondorio bera adierazteko beste modu bat litzateke esatea errenta-maila baxuko biztanleen artean oso murrizta dela euskararen presentzia, hainbat eremutan. Bestalde, ondorioztatu daiteke errenta altuaren eta euskalduntasunaren arteko erlazioak badituela bere mugak, eta errentarik altuenak dituzten sektore sozialetan

ere murrizta dela euskararen presentzia, Soziolinguistika Klusterrak udalerri buruz egindako ikerketak edo A ereduko ikasleen tipologia sozioekonomikoak adierazten duten bezala. Zehatzago esateko, beraz, badirudi errenta ertain-altuko sektoreetan lukeela euskarak presentziarik handiena.

Gure hau ezin daiteke ikerketa osatutzat hartu: gure lana datuen errepaso bat egitea izan da, datu sakabanatuak eta desordenatuak, urte desberdinetan egindako ikerketetan jasoak, eremu ugaritakoak eta euskararen lurralde osokoak ez direnak. Klase-posizioaren indefinizio bat ere badute erabilitako ikerketa guztiek, klasea analizirako kategoria gisa baztertzeaz gain, ez baitute errentaren baremo zehatzik ematen edo ikuspegi baldar samar bat erabiltzen baitute, eta horrek nahitaez datuen indefinizio bat ere bai baitakar. Ondorioak, beraz, ezin dira behin betikotzat jo. Hala ere, uste dugu eremu esanguratsuetako datuak jaso ditugula, aski bederen errentaren eta euskararen arteko korrelazio bat existitzen dela baieztatu ahal izateko.

Datu hauek, gure ustez, gai honetan sakontzeko beharrezkotasuna azaleratzen dute. Gai honek oro har eragiten dituen erreakzioak ikusita, nabarmena da deserosotasuna sorrarazten duela, segur aski euskalgintzaren tradizio ideologikoagatik eta bertako hainbat kideren klase-posizioagatik, besteak beste. Deserosotasunak gorabehera, ezin zaio luzaroago entzungor egin: euskararen biziraupenak kezkatzen duen eta hura bermatzeko politika eraginkorrak egin nahi dituen edonork eutsi beharko lioke gaiari. Hutsuneak asko dira eta egin beharko dira ikerketa sistematizatuagoak eta zehatzagoak. Hala ere, jakin behar genuke egungo soziolinguistika burgesak badituela bere mugak, soilik errealitatea deskribatzen baitu datuetan, zeinak prozesu sozial konplexuen emaitzak baitira, finean. Beharrezkoa izango da, beraz, errealitatea ulertzeko eta bertan eraginkorki esku hartzeko, interpretazio politiko egoki bat garatzea. Badago zer egin. /

ERREFERENTZIAK

1. VI. Inkesta Soziolinguistikoa, Eusko Jaurilaritza et al., 2016, 3-4. orr.

2. *Ibid.*, 9. or.

3. *Ibid.*, 22-23. orr.

4. *Ibid.*, 24-27. orr.

5. Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko II. inkesta, SIIS eta Gipuzkoako Foru Aldundia, 2014, 31. or.

6. «Pobreen hizkuntzak», Joseba Zalakain, *Berria*, 2020ko urria.

7. Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko II. inkesta, SIIS eta Gipuzkoako Foru Aldundia, 2014, 32. or.

8. Euskararen B1 maila Lehen Hezkuntzan. Txosten Orokorra, ISEI eta Eusko Jaurilaritza, 2007, 50. or.

9. VI. Inkesta Soziolinguistikoa, Eusko Jaurilaritza et al., 2016, 16. or.

10. Unibertsitatetik kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak, Euskal AEn, lurralde eta irakaskuntza-mailaren arabera, zentroaren titulartasunari eta hizkuntza ereduari jarraiki. Datu-aurrerapena. 2019-2020, EUSTAT, 2020.

11. Euskarak Nafarroan izan duen bilakaeraren adierazle soziolinguistiko batzuk, Carlos Vilches eta Mikel Vilches, *BAT Aldizkaria*, 2006.

12. Euskararen B1 maila Lehen Hezkuntzan. Txosten Orokorra, ISEI eta Eusko Jaurilaritza, 2007, 35-37. orr.

13. «Ghetto-ikastetxeen egunerokoa», Mikel Garcia, *Argia*, 2018ko iraila.

14. Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak, Natxo Sorolla et al., Soziolinguistika Klusterra, 2019, 33. or.

15. *Ibid.*, 35. or.

ARTEAREN AUTONOMIA ETA XX. MENDEKO BIGARREN ERDIKO ABANGOARDIAK



Testua Maddi Sarasua

XX. mende erdialdean, mendebaldean garatu ziren abangoardia artistikoen inguruan jardungo dut artikulua honetan. XX. mende hastapenetik 90. hamarkadara, aurreko arte ekoizpenarekiko berritzaile eta apurtzaileak izan ziren korrante artistikoei abangoardia izenez deitu izan zaie. *El asalto a la cultura* (2007) Stewart Home ikerlariaren lana oinarri harturik, bereziki bigarren faseko abangoardiez arituko naiz, artearen autonomiaz gogoetatzeko aukera zabaltzen baitigute. Zenbait talde edo korrante artistikoetako ideia edo ekintza batzuk hona ekartzea da ene asmoa, irakaspen politiko batzuk ateratzeko balio digutelakoan.

DADAISMOA ETA SURREALISMOA

Dadaismoa eta Surrealismoa jotzen dira ondoren etorriko diren mugimenduen aitzindaritzat. Dadaismoa 1916 urtean sortu zen eta lehen mundu gerrak ekarritako zentzu galtzea kokatzen da haren oinarrian. Surrealismoan, Sigmund Freud psicoanalistaren tesien eragina aipatu behar da: ametsa, subkontzientea eta kontrol arrazionalik gabeko artea. Garaian artea harmonia eta ordenari lotzen zitzaion, eta surrealisten hori hautsi nahiz, besteak beste, idazketa automatikoari ekin zioten. Hizpidera ekarri nahi ditugun mugimenduetan sartu aurretik, ekar dezagun Richard Huelsenbeck autorearen *En avant Dada: Dadaismoaren historia bat* (1920) laneko aipu bat gurer, ondorengo mugimenduetan eragin zuten, baina aurretiaz zetozen, ideiez jabetzeko: «Dada boltxebismo alemana da. Burgesiari artea haren legitimizaziorako erabiltzeko aukera erauzi behar zaio. Artea zakarrontzira bota behar litzateke eta Dada borrokatuko da horretarako».

COBRA

COBRA, 1948-1952 artean, nazioarteko plataforma bat izan zen. Bilkurak, erakusketak eta trukaketak antolatu zituzten, eta aldizkari bat sortu era bai. Nagusiki, «askatasun adierazpena» eta «gerraondoko hutsune kulturalaz» jardun zuten. Klase zapaltzaileek artea dependentziara eraman zutela eta haren konbentzionalismoak irudimen, desira eta biziaren adierazpena oztopatzen zituela zioten. «Forma artistikoak inposizio historiko diren artean, ez da arte herrikoirik izan» egiten zuten aldarri. Individualismoaren kultura identifikatzen zuten kapitalismoan, eta kontrara, arte herrikoia, haien aburuz, bizitza modu zuzen eta kolektiboa adieraztea zen. Askatasun berri bat sortzekotan zirela zioten, zeinetan jendeak bere sormen bulkadak asetzen ahalko lituzken. Prozesu horren emaitza zitekeen artistaren posizio pribilegiatua deuseztatzea. Transizio garaian, sormen artistikoa existitzen den kulturarekiko gerran zegoela uste zuten, etorkizuneko kultura baten berri ematen zuen bitartean. Izaera bikoitz horregatik, arteak gizartean rol iraultzailea zuela defenditzen zuten.



Cobra / Pierre Alechinsky & Christian-Dotremont /



Cobra / Karel Appel /

Burgesiari artea haren legitimizaziorako erabiltzeko aukera erauzi behar zaio



Internazional letrista / Constant /

INTERNAZIONAL LETRISTA

Mugimendu Letristaren zatiketa bat izan zen Internazional Letrista. Honen parte ziren, Debord eta Wolman autoreen *Metodos de desviación* laneko aipu hau interesgarria zaigu: «Ondare literario eta artistikoa propaganda iraultzailerako baliabide bezala baliatua izan behar litzateke. [...] Beharrezkoa da arlo horretan jabetza pertsonala deuseztatzea. Behar berrien agerpenak iraungitzat uzten ditu iraganetik inspiraturiko obra batzuek, muga eta ohitura arriskutsu bihurtzen direnak. Auzia ez da maite ditugun ala ez, haratago joan behar da».

Internazional Letrista, batik bat, fenomeno paristarra izan zen. *Potlatch* aldizkaria argitaratzen zuten, eta dohainik banatu. "Potlatch" izenak gizarte aurremerkatale egiten die erreferentzia, «opari» bidez funtzionatzen zutenak, truke ekonomikoen bitartez baino.



Internazional letrista / Constant /



Internazional letrista / Guy Debord /



Internazional letrista / Guy Debord /

LEHEN ARTISTA ASKATUEN

MUNDU MAILAKO KONGRESUTIK, INTERNAZIONAL SITUAZIONISTARA

«XX. mendean, utopiaren printzipioetara atxikitutakoek “artearen”, “politikaren”, “arkitektura-rena”, “hirigintzaren” eta diziplinen bereizketatik sorturiko bestelako espezializazioen artean lan egin zuten. Utopisten xedea mundu “berri” bat “sortzea” zen, espezializazio horiek existituko ez zirenak» (S. Home).

Hirigintza unitarioa edo bateratua aipa dezagun hemen. Hirigintza bateratua etorkizuneko bizimoduari loturik ulertzen zuten, askatasun gehiago eta naturaren gaineko kontrol handiagoari loturik. Constant Nieuwenhuys margolaria, adibidez, kanpatzen zuten ijitoentzat, teilatu beraren peko bereizketa paretak eraiki zituen, biztanleen beharren arabera nolanahi lekualdatu zitezkeenak. Eredu hori, Constantek zioenez, hiritar zibilizazio berri baterako manifestua zen, jabetza komunalean, mugikortasunean eta giro bateratuaren etengabeko aldagarritasunean oinarritua.

Gallizio margolari italiarrak, bere aldetik, “tin-du industrial” garatu zuen: 70-90 metroko arteko oihalak ziren, biribilkietan gordetzen zituenak. Artistaren esanetan, janzteko, gainean esertzeko edo arkitektura mugikorraren eraikuntzan erabil zitekeen bere margolana. Ondotik, Internazionale Situazionistak pintura mota hori “antipintura” bezala joko du, hainbesteko obra bolumena ekoiztean, Galliziok merkatu artistikoaren egitura perturbatzea edo desbideratzea baitzuen xede.

Internationale Situationiste-ko (Paris, 1958) bigarren alean, pintura industrialaren ustekabeko salmenten arrakasta aipatzen da. Merkatu artistikoaren ekintza defentsibo bezala identifikatzen dute, pintura industrial merkatuaren balio eskalara egokitzeko saiakera bailitza, oihala biribilki bakoitzak koadro handi bat balitz bezala salduz. Situazionistek metroaren prezioa laukoiztuz, eta oraino biribilki handiagoak ekoiztuz erantzun zioten horri.

Bestalde, Guy Deborden ideiak garatu behar ditugu hemen: «Kultura deitzen dugunak, bizitza antolatze dauden posibilitateak islatzen ditu, baina

**Kultura deitzen dugunak,
bizitza antolatze dauden posibilitateak
islatzen ditu, baina baita
prefiguratu ere**

Sorkuntza ez da objektu eta formen antolatze soila, antolaketaren lege berrien asmakuntza da

baita prefiguratu ere. Gure garaia bereziki ezau-garritzen du jardun politikoaren mugimendu motelak, ekoizpen aukeren garapenaren atzetik, zeintzuk munduaren antolaketara hobe bat aldarrikatzen duten».

Debordek kontsideratzen du politika iraultzaileak, nahita nahiez, iraultza kulturalaren programa daramala berekin. Zentzu horretan, bere ustez, Dada kolpe hilkor bat eman zion kulturaren nozio tradizionalari, surrealismoak, burgesiaren konfusio mekanismoen aurka borrokatzeko metodo eraginkor bat eskaini zuen heinean. Subkontzientearen rola deskubritzea sorpresa eta berrikuntza izan zela iritzi zuen, baina ez etorkizuneko sorpresa eta berrikuntzen lege. Teoriaren berritze faltari egozten dio Surrealismoaren gainbehera, eta baita lehen langile mugimenduarena ere.

Ondorengoa zen Deborden tesi nagusienetako bat: «Ulertu behar da behin betiko besteek sorturiko marko baten barnean ekoiztutako adierazpen pertsonal soila ezin dela sorkuntza bezala kontsideratu. Sorkuntza ez da objektu eta formen antolatze soila, antolaketaren lege berrien asmakuntza da». Deborden eremu berria, egoeren sorkuntza izanen da, une bateko bizitza giroen eraikuntza konkretua, eta horien transposizioa goragoko kalitate pasional batera. Adibidez, esentzialki mota ezberdinekoak diren jokoak asmatuko ditu, lehia eta eguneroko bizirik bereiztea ukatzen dutenak.

Deborden hitzetan: «egoeren eraikuntza ikuskitzen modernoaren hondarren gainean gertatzen da. Erraza da ikusten zein heinetaraino ikuskitzaren jatorria bera mundu zaharren alienazioari lotzen zaion. Alderantziz, esperimentazio kultural iraultzaile pertinenteak ikusleak psikologikoki heroia-ekin identifikatzeko duen joera hausten saiatzen dira, ekintzara bultzatzeko, beraien bizi propioa iraultzeko gaitasunera eramanez».

Bere burua eta bere jarraitzaileak abangoardiatzat hartzen ditu Debord eta masek probokazioa behar dutela aldarrikatzen du, horien existentzia propioa alda dezaten. Sektarismoaz ere dihardu, hau arrisku bezala identifikatuz. Bere iritziz, COBRA taldeak ongi ulertu zuen artisten internazionala sortzearen beharra zegoela, baina Letrismoaren zorrotasun intelektuala falta izan zitzaion.

INTERNAZIONAL SITUAZIONISTA

50. hamarkadan, Frantzian garatu zen pentsamendu marxistaren berrikuspenaren bueltan sortu zen giro intelektualak, bidea ireki zion Internazional Situazionistaren sorrerari, zeinak antolakuntza kulturala eta politikoa uztartuko zituen. Eztabaida, Alemanian 20. hamarkadan eman zenaren bidetik zihoan, nahiz eta, frantses errebisionismoak Lukaks, Adorno eta horien pentsamenduaren zorrotasuna falta zuen.

1949an sortutako *Socialisme ou Barbarie* taldearen teoria politikoak eragin nabarmena izan zuen Internazional Situazionistaren baitan (talde horren ideien artean, besteak beste, antolakuntza komunistarako langile kontseiluak eratzearen proposamena zegoen).

Constant, Gallizio, Michèle Bernstein, Debord eta Asger Jornek osatzen zuten mugimendu situazionistaren bihotz teoriko eta organizatiboa. Hastapenean, Galliziok finantzatzeko mugimendua, eta 1958tik aurrera Jornek, bere koadroak salduz irabazten zuen diruarekin. Situazionista batek dirua behar zuen aldiro, koadro bat oparitzen zion Jornek, segidan salduko zela jakinik. Hil arte jarraituko zuen, kide eta kide ohiei koadroak ematen, baita mugimendutik atera eta hamabi urtera ere. Azken finean, denek sinesten zuten ekoizpen artistiko kolektibo ez-lehiakorrean.

Debordek irudikatzen zuen sormen iraultzaile bat existitzen zela guztiz kulturaren marjinan. Internazionalako kide holandarrak, aldiz, urbanismo unitarioaren garrantzian tematzen ziren, sorkuntza askatuaren eta iraultza kultural permanentearen baliabide alternatibo bezala. Kongresu baten itxiera gauean paskinez bete zuten hiria «iraultza kultural bat lo zareten bitartean!» irakur zitekeen horietan.

Agian aipatu beharrekoa da kideak bota izan zirela, besteak beste, eliza bat eraikitzeako kontratu bat onartzeagatik edo lanak museo eta galerietan aurkezteagatik, «ideologikoki onartezinak ziren indarrekin kolaboratzeaz» akusatutik.

1960 urtean, Debord eta Canjuerek idatzitako *Programa iraultzaile bateratu bat definitzeko atariko azterketak* lana argitaratu zuen Internazional Situazionistak. Pierre Canjuers *Socialisme ou Barbarie* taldeko teoriarari bat zen eta testua internazional barnean eztabaidatzeko eta langile mugimenduko militante iraultzaileekin loturak eraikitzeako xedearrekin aurkeztu zen. Alabaina, Internazional Situazionista sektarioegia zen proposamenak arrakasta edukitzeko.

Posizio desberdinak agertzen ziren auzi soziala abordatzeko moduan, eta eztabaidak eman ziren.

Esaterako, *Spur*, Internazional Situazionistako uneko sekzio aktiboenak, kritika egiten zien besteei, langileria iraultzaile baten existentzia auresuposatzeagatik. Jornen dimisioa eta gero, desadostasunak handitu ziren internazional barneko fakzio kulturalaren eta politikoaren artean.

Fakzio politikoaren eragina nabari da, hala ere, garaiko testuetan: «auzia ez da planteatzea ukapenaren ikuskizuna, ikuskizunaren ukapena baizik. [...] Gure postura bi munduren arteko borrokalariena da: bat ez duguna onartzen eta bestea oraindik existitzen ez dena».

Azkenerako, Internazional Situazionista bitan bereizi zen: 2. Internazional Situazionista eta Internazional Espekto-Situazionista. Artea ulertzeko modu ezberdinak bazituzten ere, haien pobrezia teorikoa nabarmentzen du Homek.


FLUXUS

Fluxus taldearen ekitaldi bat adibidez haxe izan zen: zilar koloreko kasko bat buruan eta gitarra eskutan, jotzeko prest, Robin Pagek, une bat itxaron eta, gitarra kolpatzen hasi zen oholtzaren eta publikoaren kontra, pasabidean zehar eta eskailera mailetan, karrikara atera arte. Efektu dramatikoak eragin zuen, ikusle guziak altxa ziren eta jarraitu zuten, karrikan korrika ari zen bitartean gitarra abantzu desintegratuari kolpeak ematen zizkiola. Gaueko zerua tximistargiz betea zen, mundu guzia ikaran zegoen eguna zen huraxe, Kennedy eta Krucheven arteko tentsio puntu gorenekoa, Kubako krisiaren testuinguruan.

Beste happening batzuetan, adibidez, protagonistak zuzeneko show bat ematen ari zen telebista bat ehortzi zuen. Hurrengo batean, eskopeta tiro batekin izanen zen suntsitua pizturiko telebista.



Gure postura bi munduren arteko borrokalariena da: bat ez duguna onartzen eta bestea oraindik existitzen ez dena



Fluxus

Propagandaren erabilera, lau alor nagusitan be-
reizen zen: pikete eta manifestaldiak, sabotajeak
eta etenaldiak, konposizioak eta fluxus argitalpe-
nen salmenta. Alor hauek helburu bikoitzerako ba-
lio behar zuten: "kultura seriosa" deitzen zutenaren
aurkako eta Fluxus beraren aldeko ekintza bezala.

Garraio sistema perturbatu behar zen prestatu-
tako matxurekin, hiriaren errepide sistemako gune
estrategikoetan, kotxe gehien ibiltzen zen uneetan.
Komunikabide sistema zotopatu behar zen berri fal-
tsuen zabalpenarekin eta posta sistemaren satura-
zioarekin, milaka paketeren bidez (galtzada harriak
edo antzeko objektuekin). Egunkariei, arte galeriei
edota artistei bidaltzen zizkieten zigilu gabeko pa-
keteak beste hainbeste galeria, kontzertu sala eta
museo igorle bezala ezarri. Auzo finantzarioetan
efikazia maximoa ukanen zuten ekintzek, eta kon-
traeragin gutxien langileengan.

Baziren bizi kulturala interbenitzeko planak ere,
kirasdun bonbekin, "pika-pika" hautsekin, iragar-
ki faltsuak ezarri eta emergentzia zerbitzuei dei



Fluxus / Takehisa Kosugi & Ben Vautier /



Fluxus

eginez edo merkantziak enkargatuz (pizzak, jana-
ri txinatarra...) inaugurazioak zituzten museo eta
galerietara.

«Ez ukitu!

Ez txistua bota!

Ez erre!

Ez pentsatu!

Ez bizi!

Gure proiektuek —gure inguruneek jendea askatzea
dute helburu—, soilik utopien egikaritzeak egingen du
gizakia uros eta bere frustrazioez aske! Erabili zuen
irudimena! Batu... elkarbanatu boterea! Banatu
jabetza!»

Bestelako performanceak ere antolatu zituzten,
esaterako, "Fluxmeza" deitu zutena. Meza berezi
honetan, bereterrek gorilaz jantzita zeuden, ardo
sakramental xiringa batekin edaten zen. Ostiak
laxantedun gailetatxo urdinak ziren, eta ogia bere
gainean kaka egiten zuen uso mekaniko batek kon-

tsagratu zuen. Ke bonbak baliatu zituzten kandela gisara eta ardoz beteriko superman puzgarri batek hainbat odoluste jasan behar izan zituen. Hori guziaz, grabazio hotsez giroturik: tren zarata, zakur zaunkak, txorien kantuak eta su armen tiro hotsak. Fluxumezaren ondotik, antzeko zenbait ekitaldi antolatu zituzten, besteak beste, “fluxbereizketa” (1971), “fluxhalloween” (1977), “fluxexkontza” (1978) eta “fluxehorzketa” (1978) Macunias Boston hil zelarik. Honela adierazten zuten:

«Purgatu mundua kultura “intelektual”, profesional eta merkantilizatuaren eritasun burgesetik, PURGATU arte hiletik, imitaziotik, arte artifizialetik, arte abstraktutik, arte ilusionistatik, arte matematikotik.

PURGATU MUNDUA EUROPEISMOTIK! [...] BULTZATU MAREA UHOLDE BAT ARTEAN,

Bultzatu arte bizia, anti-arte, bultzatu jende guziarentzat helgarria den ez-artearen errealtatea, ez soilik kritikoentzat, diletanteentzat eta profesionalentzat dena.

BATERATU iraultzaile kultural, sozial eta politikoen koadroak ekintza fronte bakar batera.»

METZGER ETA ARTE AUTOSUNTSITZAILEA

Gustav Metzgerrek arte autosuntsitzaila sistema kapitalistaren eta gerra makinariaren irrazio-naltasunaren aurkako terapia bezala garatu zuen. Modu horretan, Metzger eta arte autosuntsitzaila artearen merkantilizazio sistemaren aurka egin zuten.

Idea bat egiteko, Metzgerrek honako eskultura egitea aurreikusi zuen, nahiz eta azkenean ez zuen egin: kubo formako eta 30 oineko eskultura bat, altzairu ez erreflektantez egina. Kuboaren barna material elektroniko konplexu eta garestiz osatua izan behar zen, eta ekipamendu hori matxura eta jarduera auto-suntsitzailak burutzeko programatuko zen. Urte batzuetan ageriko deus gertatuko ez litzatekeen arren, behin barneko elementu guziak suntsituta, altzairuzko egitura kapaz kapa joanen zen desintegratzen, indar elektriko, kimiko eta mekaniko konplexuen eraginez. Azkenerako, hondakin meta bat besterik ez zen geldituko agerian.

Metzgerren arabera, arte autosuntsitzaila beharrezkoa zen gerraren eta haren bidezko deuseztapen nuklearraren ordezkatzaila posible bakarra zelako, «errepresio sexualak psikologikoki perturbaturiko norbanakoz gainezka dagoen gizarte batean».

Metzger eta arte autosuntsitzaila / Gustav Metzger /





Metzger eta arte autosuntsitzailea / Gustav Metzger /



Gustav Metzgerrek
arte autosuntsitzailea
sistema kapitalistaren
eta gerra makinariaren
irrazionaltasunaren aurkako
terapia bezala garatu zuen





**PROVO HOLANDARRAK, KOMMUNE
1, MOTHERFUCKER-AK, YIPPI-AK
ETA WHITE PANTHER-AK**

Provo taldekoek, adibidez, «bizikleta zuriaren plana» gauzatu zuten. Bizikleta zuriak utzi zituzten Amsterdam guztian zehar, behar zuenak hartzeko. Dohainikako garraiobide komuna aldarrikatzen zuten, jabetza pribatu kapitalistaren eta «kotxe-munstroaren» aurka. Baina provoek nazioarteko fama, Beatriz eta Claus Von Amsburg printze-printzesen ezkontzan egin zuten ke-bonbazko erasoak ekarri zien 1966an.

Aldiz, Berlinen sorturiko *Kommune 1* taldearen interbentzio ezagunenetarikoa, Bruselako saltegi handi batzuen sutearen ondoren egin zutena izan zen. «Noiz erreko dira Berlineko saltegi handiak?» zioen eskuorria zabaldu zuten, sutea Vietnamgo gerraren aurkako ekintza izan zela iradokiz. Ekintza hori, argiki, probokazio hutsa besterik ez zen izan, baina komunikabideen haserrea piztea lortu zuten,

burgesekek lasai lo egitea galaraziz.

Bere aldetik, *Black Mask* taldea arte galerien inaugurazioak, museoetako hitzaldiak eta rock kontzertuak erasotzera zuzendu zen nagusiki. Motherfuckeers eta gero Werewolves bezala, haien jarduna bi frontetan zentratu zen: ezkertiar faltsuen bilkuren zapuzketa, eta «Armed love» (maitasun armatua) lemapean, bankuen eta bestelako jomuga sinbolikoen aurkako bonba bidezko kanpainaren garapena.

Garai haietan aktibo zegoen beste talde batek, *Yippie*-ek (Youth International Party), manifestazio pasibo moduko bat deitu zuten New Yorkeko Grand Central Station gunean, hiriko komunikazio lotune garrantzitsuenetarikoa zena. Jendeari tenore determinatu batean agertzeko, eta eguneko ordu goriko joan-etorrien gorenean, zeuden tokian bertan geldirik gelditzeko agindu zieten. Horrela, izugarritzko nahaste-borrastea sortu zuten hiriaren bihotzean. New Yorkeko burtsan ere, ekintza gogoangarri

Provo




Provo





Komune



Motherfucker





Mail-art / Ana Banana /

bat gauzatu zuten, eraikinean ezkutuan sartu eta ehunka dolar billete botatzen hasi zirelarik burtsako agenteen gainera. Hauek berehalakoan ahan-tzi zuten horien nagusien negozioa eta beren artean borrokatzen hasi ziren nork billete gehiago hartuko.

Ezarritako ordena, mehatxatua sentitu zen abangoardia bortitz honen eraginez, eta mugimendu honen kontrako erreakzio bezala, dio Homek, hedabideetan kultura hippyaren «maitasuna eta bakea» ideiei ahotza eman zitzaizen.

MAIL-ART

70. hamarkada hastapenean, hainbat taldek ideiak eta lanak elkarbanatzeko interesa zutenen pertsonentzako posta helbide zerrendak argitaratu zituzten. Hasieran, ehunka pertsona buruarinen arteko kontua zena, pixkanaka, «forma kultural berri batekin» konprometituri- zeuden milaka norbanakoz osaturiko sarea bilakatu zen.

Ana Banana delakoa zen sare horretako igorle ezagunetako bat. Postal collageetatik «Bananaren

olinpiadetara», umorezko sorkuntzak igortzen zuten, publiko guziaren entretenimendurako. Bestalde mail-art sarea —edo parte bat behintzat— preso politikoen askapenerako edo arma nuklearren aurkako hainbat kanpainetan inplikatu zen. Edo-nola ere, kontuan hartu behar da 70. hamarkadatik aurrera estremismora, sadomasokismora eta pornografiara loturiko azpigeneroak ere garatu zirela mail-art horren baitan.

Bestetik, mugimenduko honetako kide batzuek mass-mediak manipulatzegatik ezagun egin ziren. Jerry Dreva artistaren “Les Petites Bonbons In Hollywood” egitasmoa izan zen mota horretako ezagunenetako bat. Ustezko Bonbons taldeko kide horiek leku «egoki» guzietara joaten ziren dotore jantzita, eta horrela instrumentu bat bera jo gabe rock talde famatu bilakatzea lortu zuten. Kobertura mediatikoa dezente eduki zuten *People*, *Newsweek*, *Photographic Record* eta *Record Word* hedabideetan, soilik rock izar batzuei zegokien bezala janzteagatik eta zegokien jendearekin harreman- teagatik.



**Fikzioek
okupatzen dituzte
gure buruak eta
arteak produktu
bat bihurtu
da, ez baitugu
gure buruaren
inguruan edo
munduarengan
pentsatzen
erotik aldatuak
izateko moduan**

Mail-art / Les Petites Bonbons /



Mail-art / Les Petites Bonbons /



Mail-art / Les Petites Bonbons /



Class war

Homek dioenez, «mail-art korronteak arrakasta lortu zuen herritarren artean, baina zorroztasun teorikoa galtzearen truke». Orokorrean, sarea osatzen zuten kideek, haien buruarekiko sortzaile izatera bat onartzea bilatzen zuten.

Arte elitistaren aurka zihoan mail-art: «denei irekia, aukera berdinekin». Orain arte aipatu ditugun mugimendu artistiko gehienek bost eta berrogeita hamar kide artean izan zituzten, mail-art-ak, aldiz, milaka. Horregatik ezin zen noski, goi mailako artea kontsideratua izan, hainbesteko jende masaren jenioen panteoira igotzeak jenioaren kategoria zalantzan jartzea erran nahiko bailuke.

1977 urtean, Monty Catsin izeneko «pop izar irekia» sortzeko plana zabaldu zen mail-art bidez. Kontzertuak emateko edozeinek erabil zezakeen izen artistiko multiple bat martxan jartzea zen ideia, eta aski jendek baliatuz gero, Monty Catsin famatua bihurtuko zen. Karen Eliot, Mario Rossi, eta Bob Jones bezalakoak ere gehitu ziren izen multiple horien zerrendara. Izan hauek bitarteko bezala ulertu zituzten, izar-sistema azpikoz gora jartzeko eta nortasunaren nozio burgesak zalantzan jartzeko.

Bestalde, Tony Lowesen «Abandonatu artea/Salbatu gose direnak» kanpainak, Mail-art barneko joera erradikalenaren erakusle da: «[...] Fikzioek okupatzen dituzte gure buruak eta artea produktu bat bihurtu da, ez baitugu gure buruaren inguruan edo munduarengan pentsatzen errotik aldatuak izateko moduan. Orduan, artera egiten dugu ihes. [...] Gure buruak kontrolatu behar ditugu, iraultza gertatu balitz bezala. [...] Artea ekoizten segitzea geure errepresioaren adikto egitea da. Sortzea errefusatzeta da mundua aldatu nahi dugunoi gelditzen zaigun alternatiba bakarra. Abandonatu artea. Salbatu gosez daudenak». Lowek, kanpaina horren harira manifestuak, txapak, pegatinak eta puxikak igorri zituen gutunez.

Perspektiba materialista batetik, Homek dio mail-art hori ez dela artea, ez baita merkantzia bihurtua burgesiarentzat eta jarduera bati arte estatutua ematen dion prozesu sozialetik osoki kanpoan gelditzen delako. Honela mintzo da joera honen inguruan: «Perspektiba idealista batetik ondorioztatu zuten arte erreala (giza adierazpide unibertsala?) ez lukeela saldua izan behar, opari gisa emana baizik».

CLASS WAR

Class War aldizkariaren lehen aleko azalak XIX. mendean Lucy Parson anarkistak Chicagoko txiroen aurrean botatako hitzartze bat parafraseatzen zuten: «Orain da unea jende miserable guztia erre-

bolber edo mendiko laban batekin armaturik, aberatsen etxe atarietan itxoitera dedikatzeko, ateratzen direnean tiro egin edo hil arte labainkatzera».

Class Warek ez zituen langile mugimendu tradizionalen bilatu oinarriak, gazteriaren etsipenean baizik. Finean, bere propaganda diseinatua zegoen mugimendu punkeko erradikalenak erakartzeko. Haren aldizkarietan, «Berdin dio... popatik hartzera» edota «Aberats ustelak, zuengana goaz» bezalako izenburuek joera hau irudikatzeko balio dute.

Manifestaldiak ere antolatu zituzten: «Zer demontretarako balio du 250.000 pertsona batzeak Londresen, gero bildotsek bezala desfilatzeko eta klase ertaineko CNDko predikugileak entzuten amaitzeko, [...] deus egin gabe etxera joatea eskatzen digutenak. Elkar gaitetzen 5.000 eta goazen Ascotera [...], utz diezaigun gure klase gorrotoari han askatzen».

Baina Class War taldeak amorru satirikoa erabiltzeko utzi zion, justuki bere garai onenetan, Dadaistak, Situazionistak edo Punkak haiengana erakarri zituena. Hura ikuspegi populistak batengatik ordezkatu zuten, eta horrela, haien izana eta izena galdu zuten.

ONDORIOAK

Korronte edo talde desberdin hauen berri eman ondotik, Stewart Homek garatzen dituen ondorioetatik abiatuko gara, gure ondorioetara iristeko.

Homek defenditzen du artea egonela delako burgesia badeino, artea ezin dela hil, prozesu sozial bat delako: gizarte kapitalistek artea ekoizten dute, ez kapitalistek ekoizten ez dutenean; Arterari esentzia bat aitortzea mistizismoa dela dio. Bestalde, azpimarratzen du kulturaren merkantilizazioak ekarri duela aukera artearen autonomia ideologikorako. Artearen instituzioak esfera kulturala erregulatze-ko balio duela ere, identifikatzen du.

Honela laburbildu eta sinplifikatzen digu Debordek: «Dadaismoak artea deuseztatu nahi zuen artea egin gabe; Surrealismoak artea egin nahi zuen hura suntsitu gabe. Geroago situazionistek garaturiko posizio kritikoek zera erakutsi zuten, artearen gaindipenarekiko banaezinak zirela artearen deuseztapena eta gauzapena».

Aipaturiko korronteek ikuspuntu eta jardun ezberdinak garatu zituzten arren, diskurtso hau protesta forma bat da eta agitazio politiko-kulturalen jarduten du. Antolakuntza instituzio propioak eratzeari ekin zioten: *happening*, emanaldi, festibal, topaketa, kongresu eta internazionalak. Autoargitalpenetara jo zuten, egiten zutena aldi berean, eurek dokumentatuz. Homek azpimarratzen du

Artea egonen dela burgesia badeino, artea ezin dela hil, prozesu sozial bat delako

autogestio horri esker lortzen zutela nagusi diren gizarteko instituzio kultural eta merkantilez, hein batean, autonomo izatea. Ezinbestean kolektiboa zen beraien jarduna, nahiz eta, oinarri ideologikoa ez beti esplizitua izan. Artea ez merkantzia izatea eta edonork artea egiteko ahalaren aldarria egiten zuten mekanismo desberdinen bidez.

Homek ere dioenez, «hemen deskribatu talde edo mugimenduak kapitalismo kontsumistaren aurka kokatzen badira ere, antolaketa horretan oinarritzen den gizartetik sortzen dira, eta horregatik, ez dira guztiz merkatu logikatik eskapatzen. Esaterako, horietako anitzetan, berrikuntzarekiko obsesioa suma liteke, obsoleszentzia planifikatuan oinarrituriko gizarteari datzekion “hondakinaren logikaren” isla dena». Dena den, jarraitzaileek nolabaiteko nortasun komun bat aurkitzen dute, mendealdeko gizartean konbentzionalizat hartzen denarekiko aurkakotasunean eta maiz jo izan dute taktika deigarrietara halako diferentziazio baten bila. Baina ikonoklastak, berez, biziki bizitza mugatua du.

«Espero dut hauen arrakasta agitazio kultural zein politikoa behar denaren froga izanen dela, ideia erradikalek bizi garen gizarte higuigarri honetan eragin zerbait izatea nahi badugu» ohartarazten du Homek. Astinaldi kultural honek ez du bere helburu propagandistikoak gordetzeko asmorik, esanahi unibertsalen inguruko hitz aspertuen atzean. Horregatik ez dio biztanleriaren gehiengoari hitz egiten, nahi duten horiei baizik, eta modu negatiboan nahi ez duten horiei. Ez da ahanzi behar biztanleria osoari klase zapaltzailearen molde mentalak inposatzen zaizkiola, bereziki, hezkuntza sistema eta mass-medien bidez.

Arte obrak gizakiaren adierazpen, baieztapen eta komunikazio beharrei erantzuten dienez, bere horretan, sorkuntza eta askatasuna izan behar luke. Baina Homen hitzetan, arte obra ez da nehoiz entitate simple bat, gauza bat bere horretan, harreman sozial eta instituzionalen egituretan ekoiztua da eta aldi berean hauek legitimatzen ditu: «Artea erlijio sekular bat da, justifikapen unibertsal bat ematen diona estratifikazio sozialari, agintean den klaseari kultura bateratu baten zementu komuna eskaintzen diona, aldi berean emazte eta gizonen gehiengoaren eremu “goragoko” horretatik kanpo utziz».

Hortik, abangoardia artearen instituzioa erasotzen ari bada, harreman merkantilen kritika gartu beharko luke. Abangoardia klasikoaren akatsa

Internazional Situazionistarena barne, marxismo ekonomikoaren bihotzean den auzira jauzi egin ez izana dela dio.

Andrew Hewittek ere problematizatzen du Frankfurtoko eskolatik hartua izan zen artearen autonomiaren ideia. Dadaismo eta Surrealismoa proletalgo iraultzailearen azken oldarraldiaren eta honen porrotaren garaikideak dira. Porrot honek utzi zituen artearen suntsipena iragarri zuten tradizio hauek artearen arloan immobilizaturik.

Homek argi du: «Gaur egungo abangoardiak egin behar duena, bere kritika artearen instituziotik zabaldu, eta aldi berean, gida bat eskaintzea da erreferentzia marko bezala artea uzteko prest direnei». Gure ondorioei bide ematen dio Homen aipu honek. Arteak ez du gizartea antolatzen, ez da bere lege autonomoen arabera antolatzen den esparru bat. Beraz, ezin da hortik ulertu artearen eta politikaren arteko harremana.

Mugimendu hauen proposamen artistikoak (formatua, edukia, egiteko modua...) artearen definizioaren inguruko eztabaida dakar berekin. Izan ere, mugimendu hauetan usu, artea-propaganda-mobilizazioak-ekintza subertsiboak... nahasten dira “arte” izendapenaren inguruan. Zein irizpidek definitzen du zerbait artea dela? Teknikak?

Eztabaidagai handia izan zuten abangoardiek: «Artea kapitalismoan betetzen dituen funtzioen

**Dadaismoak artea deuseztatu nahi zuen
arte egin gabe;
Surrealismoak artea egin nahi zuen hura suntsitu gabe. Geroago situazionistek garaturiko posizio kritikoek zera erakutsi zuten, artearen gaindipenarekiko banaezinak zirela artearen deuseztapena eta gauzapena**



Motherfucker

baitan ulertu eta beraz suntsitu behar dugu ala artetari iraultzailetasuna aitortzeko?». Guk, artea kulturaren adierazpide estetiko bezala definituko genuke. Kapitalismoko artea beraz, modu honetako gizartearen adierazpide estetikoa da, baina baita, adibidez, gerra osteko gizarte perturbatuaren adierazpide estetiko edota klase proletariatuaren gazte kulturaren adierazpide ere... Era horretan, beste kultura bat (gauzak ulertzeko, baina bereziki, bizia antolatzeke beste modu bat) garatzen dugun heinean, adierazpide estetikoa ere, berarekin batera joan liteke aldatzen, batak bestea elikatuz. Arteak ez luke gehiago funtzio merkantilik edukiko komunismoan, baina bai agian, komunikatzeko, sentimenduak adierazteko, kritika egiteko, pentsarazteko...

Abangoardia artistiko hauetara itzuliz, gizartearen eraldatzeko asmoa bazuten ere, ekintza/obra/performance hauen eraginikortasuna ezinezkoa da ez bada artea langile klasearengana hurbiltzen. Argi ikusten da mugimendu hauetako anitz esfera sektario eta elitista batean kokatu direla, eta beste ani-

tzeko masetara iristeko ahaleginean huts egin dutela, beren hizkuntza, beren lan esparrua edota modua ez zetorrelako bat langile klasearenekin.

Mugimendu hauen autogestio kontzeptuaren lausotasuna ere aipatu behar dugu. Autogestioak autonomia dakarrela diote, merkatutik kanpo kokatzea, baina zein da hau egiteko oinarria? Ez badoa lanaren, merkatuaren eta diruaren, finean, sistema kapitalistaren oinarrien kritika baten pean eta beste oinarri batzuetako gizartearen antolatzeke prozesuari loturik, egiteko modu honek, bere horretan, ez du ezer aldatuko.

Hain zuzen ere, mugimendu hauen hutsunerik handiena, salbuespenak salbuespen, langile mugimenduarekin eta mugimendu iraultzaile eta politikoekin lotura organiko falta da. Izan ere, agitazio politiko-kulturalaz mintzo da Home, honen beharraz, baina agitazio hau, zer lortzeko? «Bateratu iraultzaile kultural, sozial eta politikoen koadroak ekintza fronte bakar batera» diote Fluxuseko ki-deek, baina praktikan hutsune hau nabaria da.

Ororen buru, arte abangoardia hauek, kultura kapitalista erasotzeko asmo, ideia eta ekintza subertsiboak garatu nahi zituzten arren, hauen jarduna mugatua izan zen, ez baitzuten inola ere, sistema aldatzerik lortu. Artearen autonomiaren kontzeptu idealizatuari kritika egin behar diogu beraz. Antolakuntza forma handiago baten parte izanen da, izatekotan, arte iraultzailea. Gure ustez, mundu hobe baten eraikuntzan lagun lezakeen artea, antolakuntza sozialistaren baitan kokatuko litzatekeena da. /

«Danok ikusten degu: euskera galdu da»

Testua Aitor Bizkarra
Irudia Zoe Martikorena

Hau iritzi-artikulu bat da, eta ez, inondik ere, artikulu zientifikoa; hori, hasteko. Errealitatearen gaineko ikuskera marxistak, Euskal Herriko gorabehera historikoen ezagutza ziurrenik mugatuak, testu-erreferentzia gutxi batzuek eta euskararenganako maitasunak —horiek guztiek nahas-mahasean—, eragin dizkidaten (edo zehazkiago: dizkiguten) lanerako hipotesiak eta intuizioak dira datozenok. Ideia garrantzitsu batzuk esan gabe datoz, eta beste batzuk esan gabe doaz.



IKUSTEN DE
KARA GALDU
IKUSTEN DE
KARA GALDU
IKUSTEN DE
KARA GALDU
IKUSTEN DE
KARA GALDUA

Euskarak heriotza bi izan ditu, dagoeneko denok dakigun moduan. Hildakoan erabat hiltzen ez eta behin baino gehiagotan hiltzeko gaitasun miragarria daukaten izate-formen taldean dago gure hizkuntza. Lehenbiziko heriotza jazarpenak eta debekuak eragindakoa izan zen. Bigarrena, aldiz, porrot ideologikoaren ondorio izan da, oraintsukoa. Pako Aristik erakutsi digunez, bigarren heriotza jazotzen da «gizartearen irudimen kolektiboak hizkuntza hori gabeko etorkizun bat diseinatzeko duenean». Bueno ba, nire asmoa da, hain zuzen, errelato hori auzitan jartzea; ez, noski, jazarpenik, debekurik zein porrot ideologikorik izan ez dela irizten diodalako —are, egitate objektiboak direla esango nuke—, ezpada iruditzen zaidalako hondoko beste jazoera batzuen epifenomenoak direla, eta ez dagoela euskararen bilakaera historikoa nahiz egungo egoera serio-ski aztertzerik oinarritzko jazoera horietatik abiatuta ez bada. Beraz, gehiegi luzatu gabe, defendatuko ditudan puntuak honakoak dira: 1)Euskararen lehenbiziko heriotzaren oinarrian zera dago: ekoizpen-modu kapitalistaren sarrera Euskal Herrian, eta, ondorioz, nekazalgoaren gainbehera eta zentraltasun-galera klase sozial gisa. 2)Euskararen bigarren heriotzaren oinarrian, berriz, zera: kapitalaren metaketa-ziklo postfordistaren agortzea eta klaseertainen gainbehera.

Gizakiak beren bizi-baliabideen ekoizpenean, beren bizitza materialaren erreproduktzioan, dira historikoki ezagutgarri. Halaber, hori erlazio sozial konkretuen pean gertatzen da nahi-taez; alegia, ekoizpen-indarrak forma sozial espezifikoetan artikulatuta ageri dira, beren garapen-maila aldakorrean, historian zehar. Dena den, erlazio sozialaren nozioak berak inplikatzeko du, modu bereizezinean, beste maila bateko ekoizpen bat ere, ez dena, bidenabar, ekoizpen materialaren produktu eratorri edo deribatu soilak: zeinu linguistikoen eta esanahien ekoizpena. Bestela esanda: bizi-baliabideen ekoizpenak eta ekoizpen semiotiko-linguistikoak

elkar zeharkatzen dute ezin askatuzko eran. Beraz, orokorrean, gizakiak berezko du elkarte-formaren baten pean bere bizitza materiala ekoiztea, eta, era berean, berezko du hizkuntza, baina bere jardunak hartzen duen forma sozial *hau ala bestea zein holako eta halako* hizkuntzan mintzatzea, ez ditu berezko: hori garapen historikoaren gorabeheren emaitza konkretua da. Esan nahi baita: gizakia ez da esentzialki kapitalista eta esentzialki txineraz mintzo dena, baizik eta esentzialki ekoizlea eta esentzialki hiztuna.

Euskal nekazalgoa ez da euskararen eramaile esentziala inoiz izan. Izan ere, euskarak eramaile esentzialik ez du. Baina luzaroan euskararen eramaile efektiboa izan dela bagenio, ez genuke astakeria handirik esango. Zehaztasunetan gehiegi sartu gabe, 1876ko data sinbolikoa baino lehen, Euskal Herriko biztanleriaren ehuneko handia nekazaria zen, abeltzaintza eta nekazaritza unitate ekonomiko prekario baina autonomoetan antolatuta, garraiobideen eta komunikazio-bideen urritasunak bakartuta eta linguistikoki eta kulturalki ezberdindua. Arrantzaleak, hiribilduetako merkatari txikiak eta abar ere aipa genitzakeen, noski. Euskara, edozein kasutan, ingurune horretan zegoen sustraiturik, klase sozial tradizional konkretu batzuk ziren bere eramaile nagusi eta, hizkuntza gisa, ekoizpen-modu konkretu batekiko egokitzapenean zen komunikabide erabilgarri; horretan zeutzan, hain zuzen, bere aberastasuna eta izaera espontaneoak.

Alfontso XII.aren (eta Canovasen) Errestiturazio Borbonikoa, (porrot egindako) iraultza burgesaren eta indar sozial aurrekapitalisten sintesi modukoa izan zen: batetik, lur-jabe handien, Elizaren eta aristokraziaren babesak eta interesen defentsak; bestetik, Espainian

Bizi-baliabideen ekoizpenak eta ekoizpen semiotiko-linguistikoak elkar zeharkatzen dute ezin askatuzko eran





ekoizpen modu kapitalista eraginkorki txertatzeko beharrezko zen homogeneizazio juridikoa, administratiboa eta ekonomikoa. Esan beharrik ez dago, nazio-merkatu espainiarraren sorrera, bere isla juridiko-administratiboa barne, lehen urrats oso garrantzitsua izan zela bizi-baldintza eta bizi eredu aurrekapitalisten oinarria eraso eta ekoizpen modu kapitalista ezartzeko. Halaber, espainiar identitate nazionalaren erakuntza-saiakera oldarkorra izan zen prozesu honen aspektu eratorrietako bat. Alabaina, Espainia giza komunitate dislokatuen batuketa heterogeneoa zen sasoi hartan, eta batasun naziona-

lak derrigorrean prekarioa behar zuen izan: XIX. mende bukaerako ertzetako nazionalismoen gorakada ikusi besterik ez dago.

Dena den, prozesuak ez zeukan atzera bueltarik, eta gaztelania izaki, Hego Euskal Herrian behintzat, ekoizpen-modu berriko komunikazio-hizkuntza, euskararen joera orokorra nekazalgoan gotortzekoa izan zen. Gainera, EAJren abertzaletasun historikoaren subjektu politikoa, egiaz, ez ziren klase xume aurrekapitalistak —horiek objektu folkloriko zilegitzaila ziren—, Bilboko burgesia urbano ez monopolista baizik. Kirikiñoren hi-

tzetan, XX. mende hasieran «Bilbo'ko kaleetan entzuten dan euskera guztia edo geiena nekezale antzekoak, base-ritarrak, umezaiñak, iñudeak, arrain-saltzaileak eta onetarikoak egiten dabe; Jaun usaiñik daukenen artean gitxi edo bapez». Hizkuntzaren eta klasearen arteko harremanaz honela galdetu zuen, Kirikiñok berak, erretorikoki: «Euskeraz berba egiteak aldean nai ta nai ez ote daroa beartsu edo ez-euki edo pobre izatea?». Garai hartan, euskal hiztunen kopurua oraindik handia bazen ere, eginbehar historikori gabe-ko klase sozial atzerakoi baten ahotan gotorturik zegoen, nazio-merkatu es-





Begien bistakoa den zigor-erregimena soilik azpimarratzeak euskararen egiturazko ahulguneei entzungor egitea eragiten du maiz; hala atzo, nola gaur

painiarretik eta aurrerabide historiko-
tik kanpo. Euskara Aro Modernorako
esentzialki ezgaitzat jotzen zuen dis-
kursu hedatua ere —Unamunorena,
besteak beste—, oinarri material erreal
horren gainean ulertu behar dugu.

Debekuen eta jazarpenaren ondorio,
1876tik 1976ra doan mendean (nahiz
eta lehenago hasi zen eta oraindik ez
den bukatu), latza izan da euskararen
eta bere hiztunen pairamena. *Erastu-
naren zigorra* moduko praktikak aspal-
ditik datoz, eta *ahotsak.eus* ireki baizik
ez da egin behar euskara besterik ez
zekitenek frankismoaren hasieratxoan
zertzuk jasan behar izan ote zituzten
konturatzeko. Halaz ere, nire ustez,
begien bistakoa den zigor-erregimena
soilik azpimarratzeak euskararen egi-
turazko ahulguneei entzungor egitea
eragiten du maiz; hala atzo, nola gaur.

XX. mendeko 20ko hamarkadan
baserri-eremuan jaiotako bertsola-
rien pentsamendua, esaterako, neka-
zalgoaren gainbehera eta euskarare-
na zuzenki proportzionalak zirelako
intuizioak zeharkatzen du. «Euskara
ez duk nehoiz galduko / baserritarrak
dauzkano», zioen Xanpunek; «O, ba-
serritxo, (...), orain bakarrik uzten zai-
tuzte / ondotik danak aldegin», «Gaur
baserri hau ikusten det nik / gure eus-
kera bezela» edo «Danok ikusten degu:
/ euskera galdu da», aldiz, Lazkao Txi-
kik; «Noizbait hilobi huntan / norbait
balabila / zure izaitearen / erretoen
bila», Xalbador zenak.

Historiaren erratzak, ordea, ekoiz-
pen-modu aurrekapitalista hura de-
sagerrarazi duen arren, euskara ez du
hizkuntza hilen edo hildakoen hizkun-
tzen zakuan sartu ahal izan. Euskara
onik atera da bere lehenengo heriotza-
tik, edo atera da behintzat, on-onik ez



izanagatik; eta hori froga bat gehiago da baiesteko hizkuntzek ez daukatela ez eramaile, ez ingurune, ez ekoizpen-modu esentzialik.

Bigarren heriotzari buruz hitz egiteko ñabardura bat azpimarratu beharra dago: Frantziako eta Espainiako nazio-erakuntza prozesuen arteko ezberdintasuna. Izan ere, Zabalzak eta Igartuak *Euskararen historia laburra* lanean dioten gisara, «Frantzia iraultza arrakastatsu baten obra da. Hamarkada askotan, aurrerakoia eta frantsesa sinonimoak izan ziren». Horrek, kontraste gisa, Modernitatearen aurkako izaera, «abarkaduna», «klerikala» eta kutsu atzerakoia egotzi izan dizkio iparraldeko euskal nortasunari. Espainiako kasua ezberdina izan da. Ezin aipatu gabe utz daiteke, Frankismoa espainiar nazio-erakuntzarako eta modernizazio kapitalistarako fase erabakigarriena, garrantzitsuen, izan zela, baina «Gerra Zibilak eta ondorengo diktadurak, (...), madarikazio hori hausteko eta eus-

kal nortasuna frankismoaren kontrako erresistentziaren eragile bat bezala aurkezteko» aukera ireki zuela: «Ipar Euskal Herrian ez bezala, Hego Euskal Herrian aurrerakoia eta euskalduna sinonimoak izan ziren hirurogeiko hamarkadatik aurrera».

XIX. mende bukaeran industrializazio-olatu bat izan zen Hego Euskal Herrian, bai; gainera, XX. mendeko lehenengo bi hamarkadak euskal oligarkia industrial eta finantzarioaren hazkunde-urteak izan ziren. Hala eta guztiz ere, hegoaldeko euskal gizartearen egiazko gizarte kapitalista 60ko hamarkadan bihurtu zen; estatu frankistak, 50eko eraldaketa-hamarkada tirabitsuen ondorio, 1959an Ekonomiaren Egonkortasunerako Plan Nazionala onartu zuenetik aurrera, hain zuzen. Nire ustez, testuinguru horretan, hegoaldeko euskal gizartearen 2. industrializazio-proletarizazio prozesuan, kokatzen da euskara bere lehenengo heriotzak ez hil izanaren motibo behi-

na. Prozesu horrek lan-indar merkantziaren bi mobilizazio-ardatz eragin zituen, jakina den moduan: kanpotik migrazioa, bata; eta, landa-eremutik hirirakoa, barne-mailakoa, bestea. Intuizioak kontrakoa dioela badirudi ere, egiturazko eraldaketa horrek XIX. mende bukaeratik zetorren gainbehera prozesuari buelta emateko abagunea sortu zuen; izan ere, ETaren ezkerreko abertzaletasun berriak sortu zuen ulermen-markoak ahalbidetu zuen historian lehenengo aldiz klase sozial historikoki progresibo batengan, langile klasearengan, proiektatzea euskarak bizirik irautea. Gainera, aurreko abertzaletasunean ez bezala, zeinetan euskara kristautasunaren eta arrazaren atzetik baitzihoan euskal nortasunaren ezaugarri bereizgarri gisa, hizkuntzak hartu zuen zentraltasuna eta sinbolismoa. Horrek guztiak, historiaren arrastora birbideratu eta oposizio-elementu aurrerakoi bilakatu zuen euskara, hala politikoki, nola kulturalki. Horrez gain,



**Bigarren heriotzari
buruz hitz egiteko
ñabardura bat
azpimarratu beharra
dago: Frantziako eta
Espainiako nazio-
eraikuntza prozesuen
arteko ezberdintasuna**

Hego Euskal Herriko biztanleria proletarizatuenaren artean euskarak daukan toki marjinala —edo, bestela esanda, gizarte-bazterketa egoeran dauden artean euskal hiztunen ehuneko txikia—, ez digu inork azaldu

euskararen estandarizazioak eta Ikas-tolen, euskaltegien eta gau-eskolen mugimenduak berebiziko garrantzia izan zuten alfabetatzean eta ezagutzaren hedapenean, ezbairik gabe.

Dena den, alde batetik, frankismoaren baitan, bereziki azken hamarkada eta erdi hartan, jazotako ekoizpen-indarren garatze basatiak eta erregimenaren barne-gatazkek; eta, bestetik, askotariko oposizio politikoen presioak, estatu-forma monolitiko hura demokrazia burgesaren bidean eraldatzera derrigortu zuten oligarkia frankista, *Trantsizio* famatuaren bidez. Esan bezala, frankismo-bukaerarantz, estatu-forma faxista zurruna ez zen frankismoak berak bultzatutako eraldaketa ekonomiko eta sozialekin bateragarria. Orduko botere-blokearen interesen ikuspegitik ere, gainegiturazko zarakar ideologiko eta administratiboa berrantola eta moderniza zedin behar zen, areagotzen zihoazen eskaera sozial, nazional eta linguistikoak modu eraginkorrean integratuak eta asimilatuak izango baziren —esaterako, langile-klasearen haserrea sindikatu eta alderdi politiko legezkoen bitartez, eta nortasun nazional periferikoena prozesu autonomikoaren bitartez—. Halatan, 78ko konstituzioan oinarrituta abiatu zen autonomien eraikuntza-prozesuak ekarri zuen, euskararen bilakaera, lehendik ere hego-ipar ardatzak bereizita zena, hegoaldean bertan ere bitan adarkatzea. Euskal Autonomi Erkidegoan, koofizialtasuna (euskara ikasteko derrigortasunik gabe) eta asimilazio administratibo-instituzionala (1979); Nafarroako Foru Komunitatean, zonakatzeta eta asimilazio oso partzial eta prekarioa (1986).

Orain, gaur egunera egin dezagun jauzi. Soziolinguistika burgesak, mundu-ikuskera kapitalistaren baitan jarduten duenak, klase sozialen eta euskararen arteko egungo korrelazioa preseski aztertzen ez duen arren, errentaren eta hizkuntzaren artean egiten duen korrelazioan ikus liteke, lerro artean irakurrita, zein estratu sozialetan gotortzen joan den euskara urteokin


(ikus, Paul Beitiak *Artekako* ale hone-tan bertan idatzitako artikuluan, ikerketa horiei buruzko datuak, xehetasunak eta argibideak). Halaz ere, ikerketa soziolinguistiko horiek era lausoan erakusten duten fenomenoak, alegia, Hego Euskal Herriko biztanleria proletarizatuenaren artean euskarak daukan toki marjinala —edo, bestela esanda, gizarte-bazterketa egoeran dauden artean euskal hiztunen ehuneko txikia—, ez digu inork azaldu. Nola esplikatu deza-kegu euskararen bilakaera historikoa-ren egungo emaitza hori? Euskararen inguruko ikerketa zientifikoen lehentasunezko objektu izan beharko luke, nik uste, baina ez da, tamalez.

Lanerako hipotesi bat botatzeko-tan, abdukzioz, prozesu autonomikoa-ren eskutik jazotakoa *euskararen klase-medianizazioa* izan dela esango nuke. 60ko hamarkadan abiatutako erresistentzia- eta euskalduntze-prozesua —hein batean euskararen klase-modernizazioa (edo klase-metenpsikosia, euskararen heriotzei buruz gabiltzan aldetik) izan zena— eten edo behintzat eraldatu egin zen 2000. urtean, hor nonbait. Ekoizpen- eta zirkulazio-esfera kapitalisten dimentsio linguistikoan, egoera diglosikoaren oinarri erreala den horretan, eragin handirik gabeko eraikuntza politiko-administratibo hark (EAEz ari naiz, batez ere), izaera elebiduneko funtzionariotza mardularen sorrera ekarri zuen. Gainera, hasierako euskalgintza militante-ko erakunde independenteei biki instituzionalak jarri zizkieten parez pare, gutxika (ikus, HABE, D eredua, etab.). Bestalde, kontuan hartu beharra dago azken pare bat hamarkadetan euskalgintzan oro har izan den profesionalizazioa eta instituzionalizazioa. Ildo beretik, ezagutzaren datu gorakorrek, beren horretan, ez dute adierazten euskara arnas-makina instituzionalera eta erabilera administratibo-formalera gerroago eta lotuago dagoela baizik. Izan ere, erabilera espontaneoaren tasa erlatiboa beherakorra da hizkuntz gaitasuna daukatenekin alderatuta, eta horrek esan nahi du, motzean, euskara ez da-



Zerarratoi
dute
luskaidun

SENTITZERO?



Jakina da euskal eliteen aldetiko euskararenganako gutxiespena konstante bat izan dela, bai formazio sozial aurrekapitalistan, bai kapitalistan

goela gizarte zibilean sustraituta. Bere-ziki EAEn, euskarak oposizio-elementu izateari utzi dio, oro har, elementu administratibo eta formal bihurtzeko, eta hor, hain justu, kokatu behar da nire aburuz porrot ideologikoaren gakoetako bat, oinarrian klasemedianizazioa daukana.

Jakina da euskal eliteen aldetiko euskararenganako gutxiespena konstante bat izan dela, bai formazio sozial aurrekapitalistan, bai kapitalistan (ikus, gaiari buruz Jon Kortazarrrek *Gedarren, Klasismoa, mendeetako euskararen etsaia* izenez idatzitako artikuluko-sorta). Kataluniakoak ez bezala, Espainiako merkatu-nazioan hasiera-hasieratik asimilatutako euskal burgesiak, esaterako, hizkuntzaren auziari sor eta gor egin izan dio, salbuespenak salbuespen, inongo erreparorik gabe. Esan gabe doa, klasearen eta hizkuntzaren arteko korrelazioaren aspektu hori ez dela, preseski, zur eta lur utzi beharko gintuzkeena. Harritzekoa dena zera da, mendeetan zehar ekoizpen modu aurrekapitalistari lotutako gizatalde pobre eskolagabeen hizkuntza izan dena —Kirikiñok ateratako argazkikoa— XXI. mendeko Euskal Herriko erdi mailako klasearen hizkuntza bilakatu izana.

Hala izanik, eta goazen bidetik, Euskal Herriko proletariotza erdaldunak zer jarrera espontaneo gara dezake euskararekiko? Bada, kasurik onenean indiferentzia; eta txarreanean, prozedura burokratikoenganako ohikoa den errefusa. Pruden Gartzia *Berrian* duela ez asko egin zioten elkarriketan zioen gisan, ETaren abertzaletasuna inklusi-bo egiten zuten klabe sozial eta gatazka-girorik gabe, etorkin proletarioek, «metroa hartzean arabieraz hitz egiten duten gazte horiek guztiek, (...), zer

arrazoi dute euskaldun sentitzeko?».

XIX. mende bukaeran abiatu zen prozesuaren eta egungoaren artean analogia ezartzea beharrezkoa da, arrunt bestelakoak izanagatik, auziaren egitura orokorrak bai baitauka antzekotasunik: hizkuntza bat dauka gu krisi-historikoan den gizarte-talde bati estekatua. Euskarari, ekoizpen modu aurrekapitalistaren krisiak, eza gutzen zaion krisi sakonena eragin zion. Ekoizpen eredu postfordistan eta kontsumo-gizartean oinarritutako metaketa-ziklo kapitalista —klase ertain zabal baten garapena ahalbidetu zuena—, berriz, egoera kritikoan dago orain, eta horrek klase ertainaren endekapena eta proletarizazioa dakartza ezinbestean. Euskara, berriz, klase ertainari lotua dago. 1876tik gaur arteko mende eta erdia ekoizpen-modu eta bizi-baldintza kapitalisten ezartze-, garapen- eta egonkortze-fasea izan da Euskal Herrian, intentsitate ezberdineko hainbat azpifaserekin (horrek ez du auzia substantzialki aldatzen). Halaber, euskararen endekapen-istorioko pasarte ilunena ere osatzen du.

Hizkuntz gaitasunei buruzko Euskal Herriko datuek berez txarrak badirudite (% 28'4 Elebiduna, non erdiak gaztelaniaz erraztasun handiagoa duen; % 16'4 Euskaldun hartzailea; %55'2 Erdalduna), ehuneko horien atzean dauden egiturazko ahulguneak kontuan hartzen baditugu —banaketa administratiboa, klase-korrelazioa eta ekoizpen-moduan sustraitzerik eza—, egoera are lazarriago aurkeztu zaigu: «danok ikusten degu: euskera galdu da». Gizartea eta ekoizpena antolatze forma historiko honetan behintzat, kapitalismoan, ez du bizirik luze iraungo.

Bien bitartean, euskara oposizio-

Orain beste
MODERNITATE
bat behar dugu





Forma sozial kapitalistaren aurkako gatazkan soilik berraktibatu daiteke euskara oposizio-elementu inklusibo gisa


elementu gisa berraktibatu beharra dago. Hori nola egiten den, edo egingarria den, noski, aztertu beharra dago. Nire uste apalean, politika sozialistaren birtartez. Izan ere, politika sozialistak politikoki osotasun burgesaren kontra artikulatu nahi duen gizarte-segmentua den aldetik— Euskal Herri mailan— euskararekiko desatxikimendutasia handiena daukana, forma sozial kapitalistaren aurkako gatazkan soilik berraktibatu daiteke euskara oposizio-elementu inklusibo gisa. Proletariotza erdaldunak, onar dezagun, ez du inongo interesik euskararekiko, badauzkalako hizkuntza ñimiño baten galera baino askoz ere arazo larriagoak, eta klase ertain euskalduna gizarte-talde historikoki atzerakoi eta erreakzionarioa delako ere bai. Bestalde, nire intuizioa zera da, aldaketa historiko bati hizkuntza batek bizirik iraungo badio, klase historikoki progresibo baten eskutik behar duela izan. Hizkuntza gutxi batzuek, burgesiaren eta nazio-estatu modernoaren eskutik lortu zuten. Euskararen aukera bakarra proletariotza eta estatu sozialista dira, ordea. Modernitateak ez badu hizkuntza esentzialik, ezein hizkuntza ez bada esentzialki moderno, orduan edozein hizkuntzak gara zezakeen izaera modernoa. Gureari kosta zaio, baina ari da. Orain beste Modernitate bat behar dugu. /

BIBLIOGRAFIA


1. Beltza, *Nacionalismo vasco* (1876-1936), Txertoa, Donostia, 1974.
2. Bolívar Echeverría, *Definición de la cultura*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko D.F., 2001.
3. Iván Igartua eta Xabier Zabalza, *Euskararen historia laburra*, Etxepare euskal institutua: euskal kultura sailaren editorea, Donostia.
4. Pako Aristi, *Euskararen bigarren heriotza*, Berria, 2020ko urriaren 4a.
5. Pruden Gartzia, «Zer motibo dute euskaldun sentitzeko egungo etorkinek?» (elkarriketa), Berria, 2020ko urriak 11.
6. Joseba Zalakain, *Pobreen hizkuntzak Berria*, 2020ko urria.







































Argitaraturik
2020KO ABENDUAN
EUSKAL HERRIAN

Koordinazioa, Erredakzioa eta Diseinua
GEDAR LANGILE KAZETA

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER **@ARTEKA_GEDAR**
INSTAGRAM **@ARTEKA_GEDAR**
FACEBOOK **@ARTEKAGEDAR**

Harremanetan jartzeko
HARREMANAK@GEDAR.EUS

Harpidetza egiteko
GEDAR.EUS/HARPIDETZA

Lege gordailua
SS-01360-2019

Lizentzia




A N T O L A K U N T Z A G E D A R R A

GEDAR LAGUNTZA PACKA 20-21

urtekaria
eta egutegia

30€ / 25€

harpideak



GEDAR.EUS/DENDA

ILDASKAK MARRASTUZ, ZOLA EGURASTUZ,
ATUKO DEN ERNAMUINARI BIDEA EGIN.
GURE JARDUNA, GURE HIZKUNTZA, GURE
IRAGANA ETA ETORKIZUNA KORAPILATZEN DITUZTEN
KORAPILATZEN DITUZTEN ILDASKAK BARRENA.
AURRERA DOA DESJABETUEN GOLDEA,
BIZIA ITAURREAN EMATEN DUTENENA,
LURREAN ILDASKAK MARRASTUZ, ZOLA EGURASTUZ,
LUR IRAULIETATIK ALTXTATUKO DEN ERNAMUINARI BIDEA EGINAZ.

arteka

[ILDASKA]

Beharrak egiten gaitu; eta gure jarduna,
gure hizkuntza, gure kosmobisioa lotuak doaz,
iragana eta etorkizuna korapilatzen dituzten ildasketan barrena.

ILDASKETAN
barrena

M

ALTXTATUKO
BIDEA EGIN

ILDASKAK
MARRASTUZ

EGURASTUZ, LUR IRAULIETATIK
BIDEA EGINAZ. BEHARRAK EGITE